



- **Arantxa Diez** «Jota bat-batekoa da, freskoa, sentimenduekin batera dator»
- **Ziburu, Kanbo eta Aloze** Herri Urratsek lagunduko dituen hiru ikastola proiektu
- **Iñigo Astiz** «Eskura dauden gauzekin ere egin daiteke poesia»
- **Alberto Barandiaran** Zergatik diren garrantzitsuak hedabideak, hizkuntzen biziraupenerako • **Teknologia berriak** Nola aldatu digute burmuina?



Europako biltzarra Donostian

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria




Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produksioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



• **NON ZER** •

2012ko maiatzaren 6a, 2.321. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Onintza Enbeita:** «Zakilaren tamainari buruz kantatzen badut, inork ez du pentsatzen nire gaia ez denik». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Teknologia berriak.** Internetek moldatutako garunak. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 5

Pertsonaia

- **Arantxa Diez:** «Libre uzten ez duzun jota, hil egiten da». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Seaska.** Hiru ikastola, hiru errealitate. AITOR ZABALETA MERINO / 15
- **Kolono israeldarren erasoak.** Beldurra iruditan. ANE IRAZABAL / 18

Iritziak

- **Zirtak** Parodia. ANGEL ERRO / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 21
- **Bildu eta Aralarreko boto-emaile horie!** PAKO SUDUPE / 22
- **Txandan** Erronka. EDU ZELAIETA / 22
- **Atzerrirako bidaiak** prestatzen. FELIX ZUBIA OLASKOAGA / 23
- **Hiruko txikian** Nafarroaren Eguna. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Euskara agiriak opari. XABI PAYA / 24

Erdiko kaiera

- **Iñigo Astiz:** «Poesia hilda dagoela diogu, eta hala ere, niri balio dit». GORKA BEREZIARTUA / 25
- **Liburuak** A. GALARRAGA / 28
- **Diskoak** I. BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** MIKEL ASURMENDI / 31
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

Termometroa

- **Zero Waste biltzarra.** Maiatzetik Gipuzkoa Zero Zabor lurralde. PELLO ZUBIRIA / 37
- **Javier Martínez, FMLNko gerrilari ohia:** «Estatuak uste badu suntsitu zaituela, ez dago negoziatzerik». HARTZEA LOPEZ ARANA / 42
- **Alberto Barandiaran, "Hedabideak" liburuaren egilea:** «Hedabideek komunitateak trinkotzeko balio dute». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 45
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 48
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 49

Azkena

- **Norabide ekonomiko zuzenago bat.** BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 50



“Zakilaren tamainari buruz kantatzen badut, inork ez du pentsatzen nire gaia ez denik”

Onintza Enbeita

Bertsolaritik intelektualera,
uda ostean politikari izatera pasatzeko.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

Diputatu andereñoa...

Nahiago anderea; goitik beherakoa, gainera. Bertigoak jota nago, baina badago nik esfortzu hori egin dezadan merezi duen jendea.

Zer galdu zaizu, bada, Espainia alde hartan?

Benetako sorpresa ez da galdutakoa topatzea, norberak aurretiaz ezer galdu gabe gauza berriak topatzea baino.

Orain, hainbat intelektualen intelektual fabrika izatea lortu duzunean!

Nik pentsatzen nuen gustu sinpleegiak nituela intelektualak izateko: telezaborra gustatzen zait, Harry Potter irakurtzen gozatu egin nuen, izen arrarodun zinema zuzendariez ez dakit ezer...

Hara intelektual posea! Orain esan futbolaren kontra zaudela.

Nik ez daukat futbolaren kontra ezer: futbola bizitzeko eta besteoi biziartzeko modu konkretu bat da jasan ezin dudana.

Ez baita emakume gaia...

Eta zeintzuk dira bada, emakumeen gaiak? Nik zakilaren tamainari buruz kantatzen badut, jendeak barre egiten du, baina inork ez du pentsatzen nire gaia ez denik. Badakite nik zakilik ez daukadala, baina pentsatzen dute asko ikusi ditudala edo.

Segi, segi...

Hilekoa aipatzen badut, ordea, nirekin kantuan ari den gizonak ez daukanez hilekorik,

ez da bere gaia. Ezta sei alaba eta andrea baditu ere. Amorrua ematen dit gai arrak unibertsalak izateak, eta emeak emeenak bakarrik!

Intelektuala eta haserretua. Ze jatorra zinen lehen, artikulak idazten hasi aurretik...

Hara, gure birramona Benitak esaten omen zuen “handia bazara tartana eta txikia bazara enana, munduan beti egongo da zer esana!”. Beraz, maite nautenek jarriko dizkidate hankak lurrean, eta besteak hor konpon!

Bertsolaritzarekin soilik zailagoa zen kontua.

Errimak dena zailtzen du eta! Intelektualak normalarekin errimatzen du, eta antza denez, intelektualak bazara ezin duzu normala izan eta normala bazara inork ez zaitu intelektualizat hartzen.

Ez eta abertzale-ezkertiar-feminista kanonikotzat ere.

Ni abertzalea naiz, ezkertiara eta feminista. Baina ez daukat hori demostratzeko inoren aurrean estereotipo konkretuak bete beharrik.

Esan zidaten kontuz ibiltzeko bertsolari emakumeekin...

Uste dut gizonak arriskutsuagoak direla, baina nola ez dagoen gizon bertsolarien kolektiborik izendatuta, gu gara fama txarra daukagunak. ■



• ASTERO GAIA •

Teknologia berriak Internetek moldatutako garunak

Gaur egun ordu asko sartzen ditugu teklatur eta saguz lagunduta pantailaren aurrean, batik bat Interneten. Aro digitalean murgilduta bizi diren gure burmuinei nola eragiten die horrek? Aldaketarik jasan al dute pentsatzeko eta funtzionatzeko moldeetan?

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

Internet gure memoriaren kanpoko biltegi gisa erabiltzen badugu, oroimena lantzeko gaitasunari muzin egiten diogu.



“Tehnologiek beti aurrera begiratzera bultza-tzen gaituzte, gogoeta prozesua alde batera utziz”, dio Gay Small neurologoak. Azken hoge urteetan, World Wide Web sortuz geroztik, ordenagailuak eta Internet kasik ezinbesteko tresna bihurtu dira gure egune-roko jardunean. Internetek ohiturak aldatu dizkigu, baina ez hori bakarrik, gure jarrera eta ekintzetan eragiteaz gain, pentsatzeko gai-tasuna eta modua aldatu dituela ere dio zen-baitek; hala nola, gure garunak ekintza oro-ren erantzuna azkar behar duela.

Nicholas Carr idazle estatubatuarrak gaia aztertu du *The Shallows. What the Internet is Doing to Our Brains* (Azalekoak. Internet gure buruetan egiten ari dena) liburuan (2010). Idazlearen hitzetan, orain arte pentsamenduaren inguruan bi etapa zehaztu izan dira: batetik, informazioa bilatzea, eta bestetik, aurkitutako informazio horren inguruan hausnarketa sakon eta sortzai-lea egitea. Egun, hausnarketa-ren etapari behar adinako garrantzia ematen ez diogula uste du, informazioa sakonki aztertu beharrean azalekoare-kin soilik konformatzen garela; alegia, teknologia berriek bilaketa egiteko prestatzen gaituztela, baina ez hausnartzeko. Erraza da informazio bat irakurtzerakoan, gaiari buruz gehiago jakitearren, testuak eskaintzen dituen esteketan klik egitea, baina adituek diote orrialde bakoitzeko izenburua eta lehenengo paragrafoa edo sarrera baino ez ditugula irakurtzen; hau da, gaian sakon-tzen ari garela pentsatu arren, azalean geratu ohi garela.

Azaleko irakurketa azkarra

Internet sortu bitartean liburuak izan dira testuak irakurtzeko ohiko tresna. Teknolo-giak bide berriak ireki ditu, eta hainbatek

Jordan Grafman neurologo estatubatuarrak dio on line egoteak eragiten duela gure arreta alde batetik bestera ibiltzea, gure garuna arinagoa izatea eta ekintza asko batera egiteko gai izatea

nahiago du Interneten irakurri, liburuan baino. Baina irakurketari onurarik egiten al diote bide berriek? Nicholas Carren esanetan, testu lineala, paperekoa, irakurtzen dutenek ulermen eta oroimen hobeak dituzte, eta hobeto ikasten dute irakurritakoa. Hori fro-gatzeko egin diren esperimentuetatik, idaz-leak berak burututakoa aipatzen du liburuan: testu bera paperean eta html kodean eman zion jendeari, ordenagailuko pantailan irakur-tzeko. Emaitzak aztertuta ondorioztatu zuen html-n irakurtzen zutenek denbora gutxiago pasatzen zutela orrialde berean, eta ahal bezain laster, artikuluekin lotura zuen beste bat irakurtzen hasten zirela webguneko este-

katan klik eginez. Papereko tes-tuaren irakurleek, aldiz, denbo-ra gehiago eskaintzen zioten orrialde bakoitzari, eta sakona-go aztertzen zuten irakurrita-koa. Proban parte hartu zuten zenbait pertsonak html-ko tes-tuaren aurrean ezinegona senti-tu zutela azaldu zioten, testu luzea izanik amaierara heltzeko gogoia zutela.

Jakob Nielsen web diseina-tzaileak ere esperimentu bat egin nahi izan zuen Internetek irakurketa sakonean izan dezakeen eraginaz jabetzeko. 232 boluntariori zenbait testu eman zizkien, eta baieztatu zuen ia inork ez zituela guztiak amaitu, eta gehienek izenbu-rua eta lehenengo paragrafoa baino ez zituz-tela irakurri. Pertsona bakoitzak html-ko orrialde batean igarotzen zuen denbora ere aztertu zuen: testu luze zein motzak zituzten orrialdeen artean ez zegoen desberdintasun handirik; 100 hitz gehiago zituzten testuetan, 4,4 segundo gehiago geratzen ziren orrial-dean. Antzeko zerbait ondorioztatu dute Ale-maniako zenbait ikertzailek: pertsona bat, oro har, web orrialde baten aurrean ez da 10 segundo baino gehiago egoten.



txondorra
erretegia

☎ 943 794 276
Bizkaia etorbidea, 9 / 9
Arrasate (Gipuzkoa)
txondorra-sagardotegi.com

Alde horretatik badago alderik gazteen eta helduen artean, gazteek webgune kopuru erdia bisitatzen baitute, eta helduek baino sei aldiz denbora gutxiago pasatzen dute aurkitutako informazioaren aurrean. Carrek dio gazteak webgune batetik bestera saltoka aritzen direla, bat baino gehiago batera begiratuta, eta horiek eskaintzen dituzten esteketan klik egiten dutela, aurreko informazioa itzuli gabe.

Halere, Oier Marigil Deustuko Unibertsitateko berrikuntza gaietako arduradunetako batek dio irakurtzeko modu hori ez duela Internetek eragiten, baizik eta jendearen interes faltak. Gauzak ikasi edo zerbaiten inguruan informatu nahi duen ororentzat Internet tresna paregabea dela dio. Baina baita Internetek gizartea bi zati garrantzitsutan banatzen duela ere: interesa duen gutxiengoa eta interes falta azaltzen duen gehiengoa.

Gauza asko batera egiteko gai

Londresko College Unibertsitateak egindako ikerketaren arabera, gazteak testu luzeak irakurri eta idazteko gaitasuna galtzen ari dira. Areago, Aleks Krotoski psikologoaren hitzetan, proba enpirikoak daude baieztatzeko informazio gainkarga eta lotura bidezko pentsamendua gazteen garunaren funtzionamendua eraldatzen ari direla. Gainera, Interneten eraginez haur eta gazteak gauza ezberdinak aldi berean egiteko gaitasuna garatu dutela diote beste ikerketa batzuek, baina kontzentrazio gaitasuna galtzen ari direla. Izan ere, Internetek informazio txiki eta laburrekin bonbardatzen gaitu, eta horiek kontzentrazioa etetea eragin diezagukete.

Carrek 12-18 urte bitarteko gazteekin egin zuen ikerketa, eta ikusi zuen hainbat



Interneten eraginez haur eta gazteek gauza ezberdinak aldi berean egiteko gaitasuna garatu dutela diote ikerketek, baina kontzentrazio gaitasuna galtzen ari direla.

Pertsona bat Interneten dabilenean, garunaren lobulu frontalak agertzen du aktibitate handiena, epe motzeko memoria eta erabakitze gaitasuna kontrolatzen dituzten neurona-zirkuituetan.

prozesu mental batera egiteko gaitasuna lortu dutela. Hartara, informazioa bilatzeko orduan aurkitu nahi duten erantzuna lortzeko denbora gutxiago erabiltzen dute. Jordan Grafman neurologo estatubatuarrek dio *on line* egoteak eragiten duela gure arreta alde batetik bestera ibiltzea, gure garuna arinagoa izatea eta ekintza asko batera egiteko gai izatea.

Oroimen gutxiago?

“Dagoeneko ez dut ia ahalegirik egiten zerbaitez gogoratzeko, badakidalako edozein galderaren erantzuna *on line* aurki dezakedala”, dio *Wired* egunkariako erredaktore Clive Thompsonnek. Jada ez da beharrezkoa gure garunean informazioa



Ezberdin irakurtzen dugu html formatuan eta paperean.

gordetzea, eta askoren iritziz gainera ez da eraginkorra. Nahikoa da burmuina aurkibide modukoa izatea, aurkitu nahi duguna non dagoen eta horra nola iritsi azalduko diguna.

Hala ere, Internetek gure oroimenean izan dezakeen eraginaren beldur da Carr. Oroitzapen berriak epe luzeko memorian gordetzen ditugunean, ez ditugu gure aukera mentalak mugatzen. Indartu egiten ditugu. Gure memoria handitzearekin batera, gure adimena ere indartzen dugu. Internetek gure memoriari on egin beharko liokeela uste du, baina Internet gure memoriaren kanpoko biltegi gisa erabiltzen badugu, oroimena lantzeko gaitasunari muzin egiten diogula. Hain justu, jendeak sarri gure garunaren zati bailitza erabiltzen du Internet: nahi dugun guztia hor dagoenez, ez dugu beharrik ikusten gauzetako asko buruan gordetzeko. Sakelako telefonoarekin gertatzen den gauza bera gertatu zaigu Internetekin: lehen lagun guztien telefono zenbakiak buruz genekizkien, eta orain, sakelakoen agenda dugunetik, zenbat zenbaki gogoratzeko gai zara?

Science aldizkariak lau esperimentutako emaitzak azaldu ditu. Guztiek ondorio bera eman dute: jendeak bere memoriaren zati bat balitz bezala erabiltzen du Internet. Informazioa ordenagailuan gordeko dela uste duten pertsonak ez dute asmorik datu horiek sakon irakurtzeko, eta gordeko ez dela uste dutenek, ordea, bai.

Informazioa azkar eta zehatz

Informazioa bilatzeko eta horren inguruan erabakiak hartzeko gaitasunak garunaren zenbait funtzio indartzea ekarri du —batez ere erabakiekin zerikusia dutenak—. Egune-ro ebaluatzen ditugu albiste eta eduki multimedia, eta horrek erraztu egiten du gauzak azkar aurkitzeko abilezia. Gary Smallek



RUPER ORDORIKAREN KANTALDIA MAIATZAK 12, 22:00 TAN USURBILGO OIARDO KIROLDEGIAN

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkartea
Sarrerak: Lizardi eta Oiardo kiroldegia (Usurbil)
Telekuxa: 943001200 / www.kutxa.net
Prezioa: 10 € alde z aurretik, 12 € egun berean.

Babeslea:



Usurbilgo Udala

dio garunak azkar ikasten duela arreta zerbaitean jartzen, informazioa aztertzen eta ia aldi berean interesgarria denentz erabakitzen. Ekintzen arteko tartea txikitu egin dela uste du Carrek, eta erantzunak azkar aurkitzeko beharra sentitzea ekarri duela Sareak, gure garunak pentsatzen duelako azkar gogobeteko dela.

Garuna, softwarearen antzekoa

Gary Small neurologoak dio Internet eguneror erabiltzeak gure garuna pixka bat aldatzen duela, pixka bat azkarragoa bihurtzen duela. *iBrain-Surviving the Technological Alteration of the Modern Mind* (eGaruna-Buru Modernoaren Aldaketa Teknologikoari Aurre egiten) liburua idatzi zuen 2008an, gure garunean, gure jarreran eta gure pentsatzeko eran Internetek duen eragina azaltzeko. Carren antzera, Smallek ere uste du Internetek gogoetari eskaintzen diogun denbora murriztu duela. Neurologoak egindako ikerketen arabera, gero eta gutxiago lantzen da memoria, baina konektatuta gaudenean garunaren zati gehiago aktibatzen dira. Pertsona bat Interneten dabilenean, garunaren lobulu frontalak agertzen du aktibitate handiena, epe motzeko memoria eta erabakitze gaitasuna kontrolatzen dituzten neurona-zirkuituetan. Smallen esanetan, horrek gauza gehiago egiteko aukera ematen digu, energia gutxiago gastatuta.

Gaixotasun Neurologikoen Ikerketa Zentroko zuzendari Juan Álvarez-Lineak azaldu du horren guztiaren arrazoia garunaren plastifikazio gaitasuna dela, hau da, eguneroko ekintzen ondorioz beti aldatzen dela garuna, eta Internetekin gauza bera gertatzen dela. Halere, aldaketa horiek eguneroko erabilaren ondorio izan daitezkeela dio. Bere hitzetan, garuna ordenagailu sofistikatu baten modukoa da eta softwarea askotan alda diezaiokezu. Egitura aldetik ere aldaketak egoten dira, garuna momentu oro bere konexioak aldatzen ari baita. Aldaketa hauek haur eta gazteei eragiten die gehien, gaur egun gazte batek esku artean darabilen informazio kopurua duela 50 urteko gazteek zerabiltena baino askoz ere handiagoa delako, eta informazio hori guztiari aurre egiteko, beste gaitasun batzuk sortu beharko dituelako.

Kontuak kontu, ordenagailu finkoez gain smartphone-ak, tablet-ak eta gainerako gadget elektronikoak geroz eta ugariagoak dira. Konektatuta bizi gara, eta geroz eta konektatutago biziko gara. Hori hala, teknologia berrien eragina handitzen joango dela ondoriozta daiteke, nahiz eta ez dakigun nola garatuko diren gure burmuinak. ■



VITORIA GASTEIZ

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

Gozatu euskaraz liburutegietan!

Gonbit-txartelak astebete lehenago *

ARRIAGA

> Naturaz mintzo diren ipuinak
Maiatzak 9, 18:00 (4-8 urte) *

ABETXUKU

> Mugikortasun iraunkorra
Maiatzak 19, 12:00 (6-9 urte) *

IBAIONDO

> Txintxin magikoa

Familia antzerkia
Maiatzak 13, 19:00, 3 euro

> Munduko bira bizikletaz

Eneko Etxebarrieta
Maiatzak 17, 18:00 (4-8 urte) *

> Gau luzea eta iluna trastero batean
Ipuin kontalaria: Cristina Alustiza
Maiatzak 25, 18:00 (5-9 urte) *

PILAR

Hotz ala bero bizikleta eguneror

Ipuin kontalaria
Maiatzak 16, 18:00 (5-10 urte) *

IPARRALDE

> Bertsoaren saltsan

Berto saio musikatua. Sirimiri taldea
Maiatzak 16, 19:00 (+14 urte) *

> Ipuina txotxongiloekin

Lantegia eta antzezpena
Maiatzak 19, 11:00 (4-7 urte) *

ARANA

> Etxean goxo

Txotxongiloak
Maiatzak 23, 18:00 (3-8 urte) *

GAUEKOAK

>> SERIGRAFIA ETA STENCIL TAILERRA

Landazuri kiroldegia
Maiatzak 25 eta ekainak 1
18:21:00, 5 euro / 2,5 euro

MONTEHERMOSO

>> TXIKIART (Aldez aurreko izen-ematea)

. Estantatu berriak
Maiatzak 5, 18:00, doakoa (4-8 urte)

. Mosaiko handiak

Maiatzak 19, 18:00, doakoa (4-8 urte)

. Gurutzegramak ez dira zuri beltzak

Maiatzak 26, 18:00, doakoa (4-8 urte)

>> ARGIA&EGUZKI BIDEOKAK

Erhal-Kanpora. GEU elkarteak
Maiatzak 9, 19:00.

MUSIKA

>> ARABATAKADA

Gose, Hesian, Betagarri, Kaotiko,
EH Sukarra, Tximeleta
Maiatzak 11, 21:00, Mendizabala

>> BIODISKOGRAFIKAK

Errezitaldi musikatua: Xabier Montoia,
Ibon Rodriguez & Iban Zaldia
Maiatzak 22, 20:30, Parral taberna

Maita duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Arantxa Diez

«Libre uzten ez duzun jota, hil egiten da»

Jose txo Goia-Ariberen disko berrian, ahots bat, Nafarroako jotari. Atea jo, eta kantari hartu gaitu. Jotaren muin betikoa, azal berrituan, beti eder, jolasti eta gustagarri.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

“Yo canto la jota de mis abuelos / Yo canto la jota al mundo entero / y allí donde vaya siempre me encuentro / la antigua emoción guardando silencio”. Aitatxi-amatxien jota kantatzen duzu, egiazki?

Bai. Tafallakoa naiz, eta han, oraindik, ez duzu harrigarri gizon-emakumea jota kantari. Giroan dago. Nire adineko gehienak jota eskolatik iraganak dira, futbolean jokatuak edo bizikletan ibiliak diren bezala. Flamarique ahizpen jota eskolak tradizio handia du gure herrian, ez debaldetan! Horretan, aitatxi-amatxien jota kantatzen dut, iraganetik egunera eta gerora. Herri adierazpide bat, eskurik esku, belanez belaun transmititzen ari garena.

Transmisioa indarrean da Tafallan...

Bai. Jota eskolan haurrak zein helduak ikusiko dituzu, jota kantatzen ikasten. Orduak eman ohi ditu ikasleak bertan, kantatzen eta entzuten. Ondotik datoz jota jaialdiak eta lehiaketak. Transmisio gisa horri, dena den, arriskua ere ikusten diot: akademizismoa, hau da, freskotasuna galtzea. Hortik ere bada. Karrikan kantari ikasteak, edo amak irakatsiak, beste gustu bat du. Oraindik orain, lagun baten etxean izana naiz. Haur hankagorria du. Lotaratzen lagundu niolarik, amak haurrari: “Amak egunero kantatzen dizu *jotica*, ezta?” “Bai”, niniak. “Bada, gaur, profesionalak kantatuko dizu!”. Kar, kar, kar... Eta kantatu nion, begiak biltzen zituen bitartean. Zoragarria izan zen... Kantatu nion: “*La niña cuando va a misa / va delante de su madre. / Parecen un ramico de albahaca / que lo bambolea el aire*”.

Nork sortuak dira jotak? Koplak, erran nahi dut. Sasoi batean, herriak sortu zituen. Orain bertzerik da, jota berriak idazteko lehiaketak ere eratu dituzte hainbat herritan, eta jendeak asmatzen ere ditu, berariaz. Sasoi batean, aldiz, herriak asmatu zituen, nork ez dakigula. Batek asmatu, besteak jaso, bere gisa kantatu, hurrengo batek nola-hala egokitu... Horrela. Ez da harrigarri jota bat bera han eta hemen entzutea, aldaketa ttipi batzuk dituelarik ere. Ahoz aho transmititzeak duen ezaugarria.

Nortasun agiria

Arantxa Diez (Tafalla, 1977). Arkitektoa da, eta jota kantaria. Bietarik du Arantxa Diezek. Herriko jota eskolan ikasi zuen kantatzen 1985etik 2001era, Flamarique ahizpen babesean. Muriillo del Fruton estreinatu zen, 12 bat urte zituela. Eta lehenbiziko jota hura: “*Un día en la tudelana / yo marchaba de Pamplona / crucé Tafalla y por la Ribera / llegué a Tudela. Un día en la tudelana / oí cantar una jota / era Navarra y aquella jota / yo no la olvido / la cantó Raimundo Lanás*”. Hainbat emanaldi, jaialdi eta lehiaketatan parte hartu zuen, ase arte. Orduan, Jose txo Goia-Arribe azaldu zen, eta guztiz aldatu zitzaion bidea. Haren *Herrimiña* (2000) eta *En jota* (2012) diskoetan lagundu du. Alemaniara bidean da maiatzean Goia-Ariberen taldean, eta Donostiako Jazzaldian izango dira uztailen.





"Atera zure barneko ijitoa, Arantxa!" erraten dio Josetxo Goia-Aribek Arantxari. Argazkian, horra kantaria, horra irria, horra ijitoa.

Zer ikasi zenuen jota eskolan?

Jotak, *pasacalleak*, herri kantak... Horixe, funtsean. Kantatuz ikasten genituen, ez zen bertze modurik. Flamarique ahizpek jotak kantatzen zizkiguten, eta guk errepikatzen, atalka-atalka. Ez genuen partiturarik, ez deus. Berrikitan jakin dudanez, Tafallako Gorriti antzokira eramán zituzten Flamarique bi ahizpak, 8 urte zituztelarik. Erran zieten, nonbait, kantatzeko, eta kantatu ere zuten. Jendea, harri eta zur izan zen haiei entzuten eta, handik goiti, ez zioten kantatzeari utzi. Ameriketan gaindi ibiliak dira jota kantari, eta han-hemengo bazter gehienak korrituak dituzte, orkestrak lagun izan dituzte... Ahizpa haiek gazteei irakatsi zieten jota kantatzen, haiek jota eskolaren lekuko hartu zuten beren gain, guri irakatsi arte.

Bertsolariak

"Ezagutzen ditut bertsolariak, jakina. Behin, Tafallan, karrikan gau-txori genbiltzalarik, Zarauzko lagun koadrilarekin egin genuen topo. Errugbi taldea zen, nonbait, eta afalondoan ziren. Horretan, "kanta jota!" erran zidaten. Eta kantatu nien. *Aunque nevaba y llovía / atravesé las Bardenas / pero como te iba a ver / me pareció primavera*. Orduan, haietarik batek bertsotan erantzun zidan. Jolas ederra izan zen".

Horrela izan da. Eta, harrigarria, emakumezkoak izan dira nagusi.

Ikasteko abildaderik behar da, berezkoa behar da Billabonakoa?

Ez zait irudi. Bozaren kontua erranen du jendeak, eta, bistan da, boza behar da. Halarik ere, Flamarique ahizpek erraten zutena dut nik beti gogoan: "Boza, guztiok dugu. Egokitu bertzerik ez duzu, kantatzen duzunean zeure buruarekin gustura izan zaitezten. Ez da bertzerik". Nork bere tesitura du, kantatzeko estilo berex bat. Jota kantarien artean, nork bere modua du, baina ez da kantuan ikasia izan beharrik. Herri adierazpidea da jota, eta, hasteko, ez duzu gaitasun berezirik behar kantatzeko. Bertzerik da bikain kantatu nahi izatea. Orduan, landu beharra izanen duzu. Baina badiot, herri adierazpide denez, jota kantatu nahi duenak, kantatu bertzerik ez du.

Usteko nuen bozaren halako ezaugarriak behar zituela jota kantariak. Halako tinbrea eta bertze.

Horra jo du kontuak, bai. Hara, anitz jota lehiaketatan hartu dut parte. Anitzetan, egiazki. Hondarreko, joateari utzi nion, aserik, ez bainuen ikusten zertan kantatu behar nuen jota, ondokoarekin lehian, halako maila jakin batean, halako epaimahai baten aitzinean –"ongi egin duzu etena koplá honetan, bertzean ez; konpasa ongi gobernatu duzu"–. Nik erratera, zentzugabekeria irudi zait. Jota bat-batekoa da, gauza freskoa, ez lotua, sentimenduarekin batera dator, kontua ez da pinoi finkoan kantatzea.

Zenbat urte iragan ziren horretaz jabetu aitzinetik, hau da, jota ez zela epaimahai batek neurtzekoa?

Hara, egun, jota zirkuitua lehiaketek, errondek eta jaialdiek osatzen dute. Izatekotan ere, taldetxoa osatuko duzu, nik egin nuen gisan. Gainerakoan, ez da bertzerik. Jaialdiek ez dute lehia kutsurik, jakina, baina denetan ere freskotasuna falta da, bat-batekotasunik ez dago. Are gehiago, iraganari begirada falta zaio, nola kantatzen zen lehen, erran nahi

Jota unibertsitatean

"Garai bateko nekazarien bizimoduaren erretratua da jota. Pedro Mari Flamariquek egina du lanen bat jotaren inguruan, koplak bildu eta bertze. Eta Esparza Zabalegik ere egin du lanik. Iñigo Agerri, berriaz, azterlana egiten ari da Los Pajes taldearen inguruan. Hari laguntzen ari naiz, adinekoak grabatzen, jotak galdu aitzin. Gainerakoan ez dakit jota unibertsitateraino heldu den. Irudi zait musikologian, folklore ikerketan, jotak dagokion lekua izanen duela. Izanen ahal du!".

dut. Aitzina, gerra sasoiaren, Tafallan bazen talde bat, Los Pajes izenekoa. Harrizko diskoa da, hori lehenik, baina haiei entzun eta jabetzen naiz diferentzia handia dagoela. "Hemen arima dago" erraten diot nire buruari. Ez da ikaragarritzko taldea ere. Batzuetan tonuari eusten diote, eta bertze batzuetan nola-hala ari dira, baina fresko ari dira, bizi. Ijitoen moduan, flamenko kantariak ere ez dute gaizki ari diren kontzientziarik, sentimenduaz baliatzen dira, barnetik.

"Yo canto la jota con sentimiento. / Yo canto la jota: nace de dentro. / Da voz al amor, la vida y la fiesta. / Se llena de aire y canta a la tierra".

Hala dio kantuak, eta bat egiten dut. Sentimendua. Barnean daramat antzinekoen jota,

haien esentzia. Nire material genetikoaren parte da. Kantatzera noalarik, orde, haiek ez bezala kantatuko dut, bertzela bizi naizelako, bertzela bizi dudalako mundua. Bertze aldi bat da oraingoa, ezin haiek bezala kantatu, nahiz sentimendua beti hor den. Sentimendurik gabe, zertan kantatu jota? Orduan bai, gauza akademikoa litzateke, kultura. Musika sotila da jota, egitura ere sotila du, baina historiaz, jendez eta sentimenduz bete da.

"Hoy canto la jota y suena distinta. / Tiene otro color, distinto camina. / Hoy sale de viaje a ver otros mundos. / Valiente se atreve a decir 'futuro'".

Diferente, ezinbertzean. Jesus Morenok, musika kritika egiten baitu Aragoiko egunkari batean, zioen Josetxoren [Goia-Arribe] *En jota* diskoa ez zela jazz musika, ez jota diskoa ere. Aldiz, haren irudiz, batak eta bertzeak eskutik heldurik egin duten pasioa zela, zer aurkituko. Esperimentazio ibilaldi bat zela, alegia. Jose Migel Lopezen erritmo etnikoen barne da gure lan hori, bi musika zinez diferenteak bata bertzearen ondoan ezartzen baititu. Erritmo etnikoen saileko lehenbiziko diskoa Dissidenten izanen zen, Berlingo talde bat marokoar batekin batera jotzen ari-

EGIZUHARPIDETZA EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SELORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPARRA
HEMEN PMU



tzen baitzen. Berlindarren musika, eta marokoarrena, biena entzuten ahal da haien diskoan, interakzioan dira, ez bata bertzearen gainetik. Orobat *En jota*. Bi urte eman ditugu gogor lanean, biak, hala jazza nola jota, indartzeko. Horretan, nahitaezko da zintzo jokatzeko. Josetxo ondoan izan da beti, nik eroso kantatzeko, onena emateko. Erraten zidan: “Atera zure barneko ijitoa!”, eta kantatzen nuen. Errespetuz, ilusioz eta maitasunez egin dugu lana. Ez du lan erraza ematen, baina natural egin dugu, deus behartu beharrik gabe.

Zure lanean bada aldarri bat: “Posible da bertzelako jota bat”. Jota zaharren kortsea estuegi duzu?

Ez da gaizki errana. Kortsea. Ehunka jota kantatu ditut, ezin konta ahala, kantatu eta

Jota, beraz

“Jota giroa ez da arrotza Tafallan, baina ez da lehengoa. Astelehen buruzurian joan Tafallara eta karrikan ez duzu jotarik kantatzen inor ikusiko. Ezta taberna zuloan ere. Baina sasoi batean, eguneroko ogia zen jota, erran didatenez, bederen. Nekazarien artean, batik bat, noiznahi hasten ziren kantari. Sorotik etxera heldu eta, ondotik, han abiatuko ziren gustuko neskaren etxe atarira, jota kantari. Orduan ez zen orain bezainbat taberna, ez irrati, ez telebista, ez hainbeste distraigarri. Jota, beraz”.

OFF THE RECORD

Zeruak Josetxo igorri

2000. urtea zen, 20 urteko neska gaztea zen Arantxa. Flamarique ahizpen jota eskolan ari zela, foniatrarenera hasi zen, ahotsaren aukera handiagoak aztertzeraz. Hainbat jotero hartzen dituen foniatra izaki, haraxe jo zuen Goia-Aribek behin: “Baina ez nornahi, izukaitza behar dut”. Eta foniatrak Arantxa agindu. Neskaren gurasoen etxera hots egin eta bertan agertu zen Josetxo, saxofoia eta teklatura harturik. Proiektua azaldu zion eta Arantxak: “Zeruak kasu egin dit!” . Elkarlan oparoaren hasiera izan zen.

kantatu, eta, hondarreko, horixe, kortse barnean sentitu nintzen. Bertzerik eskatzen zidan gorputzak: “Hagitz gehiago egin liteke jotatik abiaturik!”. Denbora joan arau hobeki konprenitzen duzu: libre uzten ez duzun hura, arnasa hartzen uzten ez duzuna, aldatzen uzten ez... ito egiten da, hil. Folklorearen beti ari da aldatzen, esentzia beti bat badu ere. Erran dizut: ezin nezake aitatzia-ama txien gisan kantatu jota, baina bat bera dut esentzia.

Flamarique ahizpek zer diote *En jota* diskoan darabilzun kantatzeko gisaz?

Ez dute entzuna oraindik, baina haietarik batek errana du: “Belarrira ongi egiten duen heinean —eta seguru ongi egiten duela—, eta zuek ongi pasatzen baduzue, aski da hori!”. Kar, kar, kar... Flamarique ahizpek kariño handia didate. Nik ere hagitz maite ditut. Josetxoren *Herrimiña* diskoan ere baziren pare bat jota, eta ahizpa haiei entzunarazi nizkielarik, aurpegi arraroa jarri zuten lehenbizian, baina berehala erran zuten: “Hagitz ongi kantatzen duzu, Arantxa!”. Ez dute gure gisan ikusten, haiena jota klasikoa da, baina ez dute gaizkirik erraten. Hein batean, konprenitzen dute.

Agur jota bat, faborez.

Hamaika ditut gustukoak, eta bat aukeratu dizut: “*Si canto me llaman loco / y si no canto cobarde. / Si bebo vino, borracho / y si no bebo, miserable*”. Maite dut jota hori. Erranez beazla, zernahi eginik ere, beti izanen dute zutaz zer erran. Ez da gaizki ere. Zutaz mintzatzen badira, ongi edo gaizki, erran nahiko du bizirik zarela. ■



Hiru ikastola, hiru errealitate

Seaskak 1964an Ipar Euskal Herriko lehen ikastola Arrangoitzen sortu zuenetik, asko aldatu da egoera. Egun, ia 3.000 ikasle biltzen ditu Seaskak, 29 ikastoletan banatuta. Herri Urrats jaiaren atarian, horietako hirutara gerturatu gara, hiru esperientzia aberasgarri bildu nahian: Kanboko Xalbador Kolegioa, Alozeko ikastola eta Ziburuko ikastola proiektua.

AITOR ZABALETA MERINO

SEASKAKO IKASTOLEK beren beharrak asetzeko erabiltzen dute Herri Urratsen bildutako dirua, baina ikastola bakoitzaren testuinguruak, tamainak, helburuek... baldintzatzen dituzte behar horiek. Gogora dezagun Falloux legearen pean daudenetik, Seaskako ikastolek ezin dutela erakunde publikoetatik dirurik jaso egoitzak finantzatzeko edo ordaintzeko. 1850. urtean egin zen Falloux legea, garaiko eskola katolikoen ondarea babesteko: Estatuak ez zuen ikastetxe pribatuaren eraikuntza ordainduko, eta ordainetan ondarearen jabetza Elizarena izango zen. 1994-95 ikasturtean, Seaskako ikastolak lege hori onartu zuten beraientzat, eta irakasleak Seaskaren babesean egotetik, Estatuaren esku egotera igaro ziren; ordainketak ere Estatuak egiten ditu ordutik, nahiz eta aipatu moduan, egoitzari dagozkionak ez. Ikastolen

federazioko lehendakari Paxkal Indoren hitzetan, hartu beharreko erabakia izan zen, bestela ezinezkoa izango baitzen gastuei aurre egitea eta ikastolak desagertu egingo ziratekeen. Gastuei aurre egitea, hala ere, eguneroko borroka dute Iparraldeko ikastolek.

Xalbador, hiru euskarridun bide berritik

Bere proiektuan sakontzeko erabiliko du festako dirua Kanboko (Lapurdi) Xalbador Kolegioak. “Ikasle autonomoak, euskaldunak, kritikoak, autokritikoak eta herritarrak nahi ditugu”, adierazi du bertako zuzendari Maite Andiazabalek. Hori lortzeko, gaika ematen den sistema klasikoa oztupo dela uste du: “Arazorik ez duten ikasleentzako egokitua dago, elitista da, eta %10a baztertzen du; Lanbide Heziketara bideratzen ditu horiek”.

Xalbador
Kolegioko haurrak.



XALBADOR KOLEGIOAK UTZIA



AYTOR ZABALETA

2 eta 8 urte arteko 28 ikasle ditu Alozeko ikastolak.

Duela lau bat urte, gogoeta prozesua ireki zen Xalbadorren, eztabaidara guraso eta profesionalak batuz. Bordeleko ikastetxe bat hartu zuten eredu, hezkuntza tradizionalako ordutegi itxia alboratu eta interdiziplinitatea lantzen duena. Aho batez onartu zuten hiru euskarri nagusiri heltzen dion bidea, nahiz eta Hezkuntza Nazionalak ematen duen programa ere jarraitzen duten. Batetik, Lankiak sortu dituzte, zeharkako gaitasunak modu interdiziplinarioan lantzeko: “Lankietan helburua da curriculumeko gaitasunak lantzea, horretarako irakasgaien artean koherentzia eta elkarlana garatuz. Egitura tradizionalak ez du errazten nahasketa hori eta Lankietan hori bultzatzen dugu”, dio Andiazabalek. Bestetik, IALA (Ikasgai Arteko Lan Astea) ekimena jarri dute martxan: urtean bitan, astebetez eskolako ohiko ordutegia eten eta gai jakin baten gainean egiten dute lan, taldeka eta diziplina ezberdinetatik –laguntzeko, gonbidatuak ekarri eta bisitak antolatzen dituzte, besteak beste–. Azkenik, tutoretzak egiten dituzte, adin ezberdineko hamabi ikasle osatuta. Gogoeta egiteko eta eskolako lan eta gaiekin irakaslearen nahiz gainerako ikaskideen laguntza baliatzeko erabiltzen dituzte orduok.

Ikasleen parte-hartzea oinarri, ikasleek, hezitzaile nagusiak eta irakasleek osatutako Euskara Batzordea ere badu Kolegioak. “Euskaraz bizitzeko proiektuak bultzatzea da helburua, ikasleak protagonista bilakaraziz” argitu digu zuzendariak.

Anduezaren hitzetan, ikasle guztiek ez dute zertan goi mailako ikasketarik egin beharrik, “baina guztiek pentsatzeko autonomia lortzea

eta adierazteko tresnak barneratzea, hori da ikastolaren xedea. Nahi dugu maila lor dezaten lizeo orokor bat edo profesional arloa egiteko. Hemendik irten osteko ikasketak egiazko hautua izan daitezen, eta ez besterik egin ezin dudalako aukeratutako zerbait”.

Alozen, euskalkia funtsezko

Garrantzitsua da txikitatik oinarri sendoak ezartzea, eta lan horretan 30 urtetik gora daramatza Alozeko (Zuberoa) ama eskolak, 2 eta 8 urte arteko umeekin. Bi ikastola baino ez daude Zuberoan, Sohütakoa da bestea, Maule ondoan. Bietan aritutakoa da Alozeko ikastolako zuzendari Solange Chimix; bere hitzetan, garrantzi handia ematen diote euskalkiari: “Euskara ez da eskolako soilik, beraz beharrezkoa da kalean erabiltzeko ere erakustea”. Horrek kezkatzen du Chimix: “Euskara ahultzen ari da, ikastolak lagundu dezake, baina ezin du dena egin. Erabili egin behar da ondoren”.

Zentzu horretan, ikastola indartzen ari dela ikustea ona dela gaineratu du zuzendariak: izan ere, 28 ikasle dituzte Alozen, baina bizpahiru urte barru 45 izatea espero dute. Herri Elkargoak eraikitako ikastola da bertakoa, baldintza onetan: haurtzaindegi publikoa dago alde batean, ikastola bestean. Irakasle bakarretik aurren bi izatera igaro dira eta epe laburrean aurrefabrikatutako eraikinak egin nahi dituzte, lehen eta bigarren maila eskaintzeko.

Ziburuk ikastola izango du irailean

Ziburun (Lapurdi) ez dago ikastolarik, baina irailetik aurrera izango dute, haurrak herrian bertan eta euskaraz hezi nahi dituen guraso talde baten ekimenari esker. Amaia Saez eta Laida Mujika dira gurasoetako bi: “Konturatu ginen, guraso batzuk prest zeudela beren haurra Ziburuko ikastola batean sartzeko, baina ez beste herri batera eramateko”. Alegia, bestela ikastolara joango ez liratekeen haurrak Seaskan matrikulatzea lortuko duela proiektu-

Senpereko aintziratik bi kilometretan eta mendiez inguratutik, MANEX kanpalekua: bakantzetako eta deskantsuko parabisu bat. 30 lekuek presentatzen dute bista bat ezin ederragoa. **Ongi etorri !**

64310 SENPERE camping.manex@wanadoo.fr
Tel. 05 59 54 13 42 **www.campingmanex.com**

tuak. Eta ikastola bat, eskola bat baino gehiago dela aldarrikatu du Mujikak: “Herri batek behar du ikastola bat, euskararen aldeko dinamikak sortzeko, haurrak herrian bertan hezteko. Gainera, hori guztia gizarteratzeko lan ere egiten du ikastolak. Herriari ekarpen handia egiten dio, azken finean”. Diotenez, gurasoetako asko frantsesdunak dira, baina beren haurrek euskaraz ikastea nahi dute.

Lehenago ere saiakerak izan direla diote Saez eta Mujikak, baina guraso talde baten bultzada falta izan zela, oraingo honetan ez bezala. Zailtasunik handiena lekua lortzea izan da, baina lokala eta irakaslea lortzea, geroz eta haur gehiago batzeko beharra besterik ez dute. Interesa duzenok idatzi ziburuko.ikastola@hotmail.fr helbidera.

10.000 euro ikasleko

Ikastola berriak sortzeko bakarrik ez, daude-nak mantendu eta hobetzeko, beharrezkoa du Seaskak hilaren 13an egingo den Herri Urrats bezalako ekimenetan lortutako dirua. Eraikinen aferak gastu handiak sortzen dituela gogorazi du Paxkal Indok, eraikin berri bat sortzeak ikasle bakoitzeko 10.000 euroko gastua ekartzen baitu.

Baina ez da eraikinena buruhauste bakarra. Frantziako legearen arabera, udalak behartuta daude ikasle bakoitzeko diru kopuru bat ematera, eskola publikoa zein pribatua izan. Barnealdeko ikastoletan ez da betetzen, lehendakariak dioenez: “Ortzaizeko ikastolak, adibidez, hamahiru herritako haurrak hartzen ditu eta ordaintzera derrigortua dagoen bakarra Ortzaize da”. Baina Ortzaizeko haurrak gutxiengo dira: ia ehun haurretatik, laurogei kanpokoak dira eta horrek diru galera handiak sortarazten dizkie. Seaskako lehendakariaren arabera, aspaldian lege hori aldatu nahian dabilta, baina zenbait zingotzi ezkertiarrek ez dute nahi. Kritikatu du hautetsi horiek borroka eremu publiko-pribatura eramaten dutela, Frantziak eskola baka-

Xalbadorko zuzendari Maite Andiazabalen hitzetan, “ikasle autonomoak, euskaldunak, kritikoak, autokritikoak eta herritarrak” nahi dituzte.



AITOR ZABALETA

rra eta publikoa behar duela argudiatuz. “Baina Iparraldean dugun arazoa da D eredu Seaskak baino ez duela eskaintzen”, azpimarratu digu Indok.

Euskara eskolan sartu dutelarik, orain berau zabaltzea eta gizarteratzea da helburua. “UNESCOK esaten du biztanleriaren %30ak hiztun izan behar duela hizkuntza bat berriz pixka bat pizteko, eta guk %10 euskaratzen ditugu, ez gara aski, Seaskak ezin du dena bakarrik egin. Guk lokomotorarena egiten badakigu, eta egingo dugu, baina ezin dugu tren osoa egin, besteek ere hasi beharko dute”, azaldu du zuzendariak. Hasiko ote diren galdetuta, hona bere gogoeta: “Ez gaitezen tronpatu, horretan hasten badira, gainontzean haur batzuk galtzen dituztelako da eta batzuk Seaskara joaten direlako. Baina euskararen afera da inportanteena, Seaska ez baitzen sortu Seaska defendatzeko, euskara salbatzeko baizik”. ■



Beldurra iruditan

Palestinarrentzat iragan urtea bortitza izan da kolonoen indarkeriaren ondorioz. Probokaziotzat hartzen diren agerraldiak, eta are gehiago, erasoak egiten dituzte kolonoek palestinar herrietan. Ezintasunari aurre egiteko, eraso horiek grabatzen hasi dira familia asko.

ANE IRAZABAL

IBRAHIM MAKHLLOUF-EK urduritasunez erakutsi digu kolonoek bere etxea eraso zuten azken aldiaren bideoa. “Ikusi, guztiek estali dituzte aurpegiak zapiez, eta zuriz dagoena errabinoa da, eraso antolatzen ari dena”. Yizhar koloniako hogeiz gizonetako ikusten dira mendi magaletik Asira Al-Qabiliya herri-
ra hurbiltzen. Soldaduak atzean daude, behatzaile gisa. Tartean, Mohamad profetaren kontrako oihuak botatzen dituzte. “Beraien lurretan arabiarrik nahi ez dutela diote”, itzuli du Makhloufek, bere burua seinaltatuz. Herriko zenbait biztanlek “alde hemendik” garrasi egiten diete. Zenbait minutuz harriak elkarri jaurti ostean, mendi magaletik gorantz itzuli dira kolonoak.

Horrelako beste hamar bideo ditu Makhlouf familiak. Batzuetan etxeko atarira ere iritsi izan dira. Leiho hautsiak ikus daitezke, eta erretako soroen zantzuak. Azken urtea bortitza izan dela diote Nabulus hegoaldeko Asira Al-Qabiliya herrixkako biztanleek.

Kolono erlijiosoen indarkeria aski ezaguna da bai Palestinan baita Israelgo gizartean ere. Dena den, azken urtean probokaziotzat jotzen diren agerraldiak nabarmenki ugartu dira. Hebron da tes-
tinguru horren adierazlerik nagusienetakoa. Nolanahi ere, Nabulus hiriaren inguruan dagoen Yizhar koloniako biztanleek Zisjordaniako bortitzenak izateko ospea hartu dute aurtan, palestinarren kontra burututako eraso kopurua dela-eta.

Koloniaren %70 Asirako lurretan eraiki ziren 1980ko hamarkadan. Osloko Akordio-
en ostean, israeldarren kontrol militarren pean geratu ziren herrixkaren ingurumariak. Geroztik, bertako biztanleek ez dute jaso ez palestinarren sostengurik, ezta gutxiago indar okupatzailearen babesik ere. “Normalean sabbaten [juduen asteko atseden eguna]

ostean etortzen dira, eta erasoak ohikoagoak dira uzta garaian. Batzuetan mendeku bila datoz, egoera politikoa beraien kontra dagoela sentitzen badute”, adierazi du Ibrahimek.

Zauri ikusezinak

Makhlouf familiak ez du bere lurren osotasuna lantzeko aukerarik, Israelgo armadak “segurtasun” lerroa ezarri baitu bere etxearen eta goialdeko Yizhar koloniaren artean. Khadra-k hunkituta gogoratzen du hesi ikusezina jabetu zen lehen aldia: “Duela pare bat urte kotxe bat antzeman nuen gure pikondotara hurbiltzen. Orduan, koloniako emakume bat eta zenbait haur ikusi nituen zuhaitzetatik pikuak hartzen. Labankada bat jasotzea bezalakoa izan zen, *baraam!* [arabieraz, jainkoak onartzen ez duen ekintza bat deskribatzeko erabiltzen den hitza]”.

Khadrak Ruba alaba txikiari begiratu dio orduan. Haurrak ez du amaren azalpena entzun, etxetik ari da korrika, jolasean. “Orain gutxira arte ezkutatu egiten zen eraso bat zegoen bakoitzean, begiak itxi eta belarriak estaltzen zituen”, adierazi du amak. Rubari aldaketa handia nabaritzen zaio orain. Med-

cus Mundi erakundeko partaideekin egindako saioen ondorioz, neskatoa seguruago dago egunerokoan pairatu behar duenarekin. Egokitzen beharrezkoa dela uste du Erakundeko Muath Zyoud psikologoak: “Hori da beraien bizitza, beraz, baldintza horietara egokitzea erresistentzia metodo bat ere bada”.

Beti bezala, haurrak dira indarkeriaren biktimarik babesgabeenak. “Erasoen ostean kontzentrazioa galtzen dute, joanda bezala daude. Gauari diote beldurra, batik bat, iluntasunari”, azaldu du Khadrak. Erasotzaile eta erasotuen arteko talka ere eguneroko jolase-
tan ezartzen dute, naturaltasunez eta inolako



Khadra eta Ibrahim Makhoulf dira bideo-kamerarekin kolonoen "bisitak" grabatzen hasi diren familietako bat. Jasaten duten indarkeriaren ikus-entzunezko testigantza jasotzea da helburua, nazioartean salatzeko.

iragazkirik gabe. "Umeak bi taldetan banatzen dira, batzuk kolonoak; besteak, berriz, herritarrak". Haatik, haur gehienek ez dute herritarren rola jokatu nahi. Ibrahimek argi dauka: "Inori ez zaio erasotua izatea gustatzen".

Seme-alabak babestu nahian, larritasuna eta estresa dira gurasoek pairatzen dituzten ondorio psikologikoak. "Askotan diote oldarrekin ez dutela eraginik haiengan, baina frustrazioa erraz suma daiteke", nabarmendu du Zyoudék. Sentimendu hori agerikoagoa omen da gizonezkoen kasuan, familiaren zama berengan hartzen dutelako. Hortaz hitz egitea ez du gustuko Ibrahimek: "Zure etxea erasotzen ikusi eta ezin ezer egin!".

Etxeko leihotik

Hain zuzen, kolonoen erasoen ondoko ezintasunari eta beldurrei aurre egiteko, berezko neurriak hartzeari ekin diote Asirako familiak. Ahozko salaketek indarrik ez dutela salatu eta irudiez baliatzen hasi dira, orain arte aurkitu ez duten babesaren bila-edo.

Aldaketa horren abiapuntu izan da palestinarren giza eskubideen alde lan egiten duen B'tselem erakunde israeldarra. 2007tik lurralde okupatuetan kolonoen oldarra sufritzen duten familiei bideo-kamerak eman eta eguneroko testigantzak jasotzeko eskatu die. Helburua, Israelgo zein nazioarteko publiko-

ari okupazioaren eguneroko indarkeriaren berri ematea eta agintari israeldarrei presio egitea ekintzen erantzukizuna har dezaten.


B'tselemgo prentsa arduraduna Sarit Michaeli da. Azken urtean Asira herrixkatik inoiz baino bideo gehiago iritsi zaizkiela nabarmendu du: "Maila baxuko eraso bezala ezagutzen diren ekintzen gorakada egon da, eta horrek gutxinaka-gutxinaka izugarritzko inpaktu psikologikoa du palestinarrengan".

Asirako emakumeek paper garrantzitsua jotzen dute bideoen grabaketan. Khadrentzat egongelako leihoa eta sabaia dira kamera atera eta ikusten ari dena grabatzeko tokirik aproposenak: "Askotan goizetan etortzen dira, senarra lanean dagoenean. Beraz, alaba txikiak logelaren babesean utzi eta gertakaria kameran islatzen dut".

Baina kolonoak Yizharrera bueltatzen direnean eta Khadrak *stop* botoiari ematen dionean hasten da Makhoulf familiarentzat benetako borroka. Hurrengo erasoak ekiditea ezinezkoa izango dela jakinda, beraien eguneroko errealitatea kanpoan ezagutzera ematea bilakatu da xedea. Irudiek babesa ematen dietela ziurtatzen dute, geriza hori soilik psikologikoa baldin bada ere. "Noizbait norbaitek geratuko ditu, eta guk aski frogaraz erakutsiko ditugu ordurako", dio Ibrahim Makhoulfek. ■



Urola Kostan
ondo
egitera goaz



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Parodia

A

rtez edo moldez bi alditan baliatu dut orrialde hau, idatzi gabeko nire lan batzuen berri emateko: eleberririk historiko bat eta *Amari* poema bilduma. Agintzen dut honakoa izango dela azkena.

Behin parodia bat egiteko asmoa izan nuen. Parodia, ez bere ohiko zentzuan, hitzari musikologian ematen zaion esanahiarekin baizik; hau da, norberaren lehenagoko materiala berrerabiliz, obra berri bat burutu. Hau, esaterako, Kirmen Uribek egin du *Bilbao-New York-Bilbao*ekin.

Nik ere ez nekien nire zutabe zaharrekin zer egin, eta bilduma soila osatzearen aurkako aholkua eman zidaten. Orduan, zutabeak honako hari narratiboaz harilkatzea bururatu zitzaidan.

Zutabeetatik jaso eta aurreztutako diruarekin bidaia bat egitera abiatu naiz Bartzelonatik; hegazkinean amona maitagarri baten ondoan eseri naiz; hitz egiten hasi natzai, kosta ahala kosta idazlea naizela berari azaldu nahian. Amonak, adeitsu ("o, ze interesgarri") baina irmo ("buruko min pixka batekin nago"), ez dit kasu gehiegirik egingo, nahiz eta, nire ustez, Carmen Balcells agente literario ospetsua den. Izan ere (obra zatikakoa denez, geroago jakingo da), dena prest neukan, Frankfurtoko liburu azokara doan hegaldaldi honetan Balcells ihesbiderik gabe harrapatzeko. Egoera okertuko zen. Nik, euskal literatura osoaren ordezkari gisa, kalte ordain (nazional) bat eskatuko nioke, esku artean daramadan eskuizkribua argitaratuta, noski. Bera tematuko zen bera ez dela Carmen Balcells delakoa. Azafatari deituko zion lekuaz alda zezan.

Orduan, nire onetik at, azafatari eraso egin nion, kabinara eraman eta abioia bahitzen dut, norabidea aldatu eta New Yorkera eraman dezatela exijituz. Bidaia bati, bitartean, nire testuak (nire zutabe bilduma) bozgorailuetatik leitze-



INIGO AZKONA


ko agintzen diot. Lehenago, eta terrorista huts eta hezigabea ez naizela argi uzteko, hegazkinean zerbait irakurtzen doazenak pribilegiatu nahi ditut, lehen klaseko eserlekuetan eseraraziz (bertako aberaskiloak kanporatuta) irakurlegoaren balioa azpimarratzeko. Hasieran best-sellerrak leitzen doazenak ez ditut tratuan sartu nahi, baina, bestela, mailaz igotzeko ia inor gabe geldituko nintzela ikusita, beraiek ere kontuan hartzen ditut. Beste salbuespen bat ere egiten dut. Jon Kortajarena top-modela ez dut *business* clasetik bidaltzen, libururik gabe egon arren, kontakizunari tentsio sexuala ematearren eta, bigarren irakurketa batean, Jon Kortazar euskal literaturaren katedratikoa- ren islatzat balia nezakeelako.

Lehen klaseko irakurle horiek, beldurtuta hasieran, konfiantza hartuta gero, aholku literarioak emango zizkidaten. Balizko Carmen Balcells eta Kortajarenak obra zatikatu bat egiteko proposatuko lidakete, hori baita gaurko merkatuak eskatzen duena; nik errazkeria horren kontra jardungo nuen (literaturaren tradizio fuerte baten alde). Baina, jakina, obra, azken emaitza, halakoxea da (nondik ondoriozta bailiteke nire baimenik gabe argitaratu dutela dagoen bezala): bahiketaren kontaketa, labur; eta, tartekatuta, edozein moduz, megafonoetatik irakurritako zutabe zatiak.

Bitartean, abioak nahikoa erregeaia ez eta ezin da NYeraino iritsi. Hitzarmen bat proposatuko lidakete, Mediterraneoko aireporturen batean lurra hartu (seguruenik El Kairon) eta jendea aske joaten utzi. Istorioak irailaren 11koa gogora ekarriz amaituko luke, hegazkineko aginteak nik hartu eta Alexandriako

Liburutegi berriaren kontra talka egiteko puntuan (alegorikoki neure burua klasi-kotasunean immolatuta). ■

Nire onetik at, azafatari eraso egin nion, kabinara eraman eta abioia bahitzen dut, norabidea aldatu eta New Yorkera eraman dezatela exijituz. Bidaia bati, bitartean, nire testuak bozgorailuetatik leitzeko agintzen diot



irudia:

Antton Olariaga





ERREGIMEN MONARKIKOAREN
SEKRETU HANDIA, ETA HELBURU GORENA
JENDEAK TRONPATURIK ATXIKITZEA DA
ETA HAIEN BELDURRA MOZORROTZEA
- ERLIJO IZEN PERFECTOAZ -
BEREN BURUAREN MORRONTZAREN ALDE
BORROKA DAITEZEN
BEREN SALBAMENDUA BAILITZAN.
ETA IGNOMINIA EZ, BAINA OHORE GOREN
BEKITELA
ODOLA ETA ARIMA EMATEA
GIZON BAKAR BATEN URGUILUAGATIK

Baruch Spinoza · 1670

'''ETA HORI GUZTIA
DIPATU GABE
GENERAL HILTZAILE
BATEK EZARRIA
IZAN LITEKEELA
ARROTZA ERREGE...'''



BEHARRIK GU INDEPENDIZATU

GARA!

Pako Sindiye

IDAZLEA

Bildu eta Aralarreko boto-emaile horiei!

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak EAEko 2.122 euskal herritarri egindako galdeketa berri eman du berriki. Prentsari buruz eman dituzten erantzunei helduta: Bildu-ren boto-emaileen %56k eta Aralarreko %60k irakurtzen dute *El Diario Vasco* edo *El Correo*.

Demagun kontuan hartzeko fidagarritasuna duela inkestak, eta gure ingurune soziologikoa ezagututa, ez dela sinesgaitza gertatzen, nahiz harrigarria bai.

Nik uste, honetan bat etorriko zaizkidala artikulu honen irakurle gehienak: Bildu eta Aralarreko boto-emaile gehienek irakurtzen dituzten bi egunkari horien helburua, dirua irabazteaz, eta kalitateko egunkaria eskaintzeaz gain, gu espainiar sentiaraztea da, *statu quo* politiko honi eustea; eta hori editorialetan, eta politikariei egiten dizkieten elkarriketetan, eta haietan kolaboratzen duten idazleen iritzi-artikuluetan, eta egunkari horiek dituzten sailen banaketan-eta, erraz frogatu liteke.

Eta halaber, beste honetan ere: Eskozian laster gerta daitekeela dirudiena hemen gertatzera, boto-emaile horiek guztiek Euskal Herri independentearen alde egingo lukete. Zergatik, beraz, esan dezagun, kontraesan horiek?

Gure etxean beti hala hartu izan da!



DANI BLANCO



Ez gara gauza asteak
dituen egun guztietan
euskarazko egunkari
bakarra kalerarazteko,
oso mugatuak gaude
prentsa bidez –*Gara*
eta *Noticias* hartuta
ere– Euskal Herri
independentearen
aldeko onurak
agertzeko



Familia-tradizioa. Euskaraz irakurtzea gehixeago kostatzen zaigu, erosoak gara eta ez dugu hor indarririk egin nahi. Euskaldunak gara edo euskaldun sentitzen gara, baina gaztelaniaz bizi gara. Kalitate profesional handikoa iruditzen zaidalako, esan dezake besteren batek. Lau eragile horien batura izan liteke egiten genuen galderari gehien hurbiltzen zaion erantzuna: familia-tradizioa, kulturalki erdaldun izatea –haatik, badaude beste egunkari batzuk nagusiki erdaldunak–, eta profesionaltasunari lehenatasuna ematea?

Ondorioak oso dira tamalgarriak: ez gara gauza asteak dituen egun guztietan euskarazko egunkari bakarra kalerarazteko; oso mugatuak gaude prentsa bidez –*Gara* eta *Noticias* hartuta ere– Euskal Herri independentearen aldeko onurak agertzeko, eta, aldiz, gatazka politikoari irtenbide duin negoziatua ematearen aurkako ahotsak gailen gertatzen dira gehien saltzen diren aldizkari horien bitartez.

EAEko jende gehienak, Eskozian luze baino lehen jazo daitekeena hemen gertatzera, Euskal Herri independentearen aldeko hautua egingo luketenak, egoskor jarraitzen du, guztiz horren aurka dauden egunkariak erosten. Otoi, eskizofrenia hori hautsi, alde onetik! ■



TXANDAN

Edn Zelaieta



“Ez nago batere ados hona etortzen direnekin, gizarte laguntzak eskatzen dituztelako eta ez dutelako interesik jartzen lana bilatzeko. Honek ez du esan nahi arrazista naizenik, baizik eta alferrak direnak gorrotatzen ditudala”.

Halaxe irakurri dut irakasle ikasketak egiten ari den neska baten azterketa batean, eta odol-tantaka hasi zaizkit begiak. Txanda honetara komentario bakar hau ekarriagatik ere, perla “ez-arrazista” gehiagorik irakurri dut ene begi zaurituekin. Dena den, ados egon ala ez, halabeharrez goaz jendarte kultura-

Erronka

niztun baterantz eta, beraz, testuinguru horretantxe jardungo dute biharko maisu-maistrek. Testuinguru horretarakoxe prestatu behar ditugu hezitzaileak.

Hortaz, bi jarrera nagusi daude funtsean: hezkuntzaren hondamendia onartu ala erronkari eutsi. Izenburuan irakurria duzunez, irakurle, badakizu zeinen alde dagidan apustu: latza, ederra edota ezinbestekoa. Izan ere, Nerea eta bere ikaskideak lehen mailan daude oraindik, irakasle bilakatzeko prozesuaren hastapenetan. Lortuko al dugu bestela pentsatzea titulua eskuratu aurretik? Lortuko ahal dugu! ■



Felipe Zubia Olaskoaga

MEDIKUA

Atzerriako bidaiak prestatzen

A

zken euriteekin udara urrun xamar ikusten dugun arren, gainean ditugu udarako oporrak, eta askoren bidaiak ere bai. Geroz eta gehiago izanik atzerriko bidaiatzeko ohitura harturikoak, orain dugu garaia bidaia osasun aldetik ere prestatzen hasteko, txangoa zapuztuko diguten arriskuak ekidinez.

Ezer baino lehen, goazen inguruko arrisurik nagusienak ezagutu behar ditugu. Kontuan izan behar dugu txerto askok 4-6 aste edo gehiago behar dituztela antigorputzak sortzeko, eta beraz, orain dugula garaia hartzeko. Herrialde bakoitzaren arriskuak ondo ezagutzeko, Gobernuaren ordezkartza-ordeak dituen osasun bulegoetara jo dezakegu. Bertan emango digute aholku orokorren, txertoen eta beste-lako neurrien berri. Lotura honek gure bidaiarako beharrezko neurriak adierazten dizkigu <http://www.msc.es/sanitarios/consejos/datosViajero/iniciar.do> Modu laburrean, ondorengo puntuak izan behar ditugu gogoan:

– Zenbait herrialdeetara sartzeko, nazioarteko txertaketa ziurtagiria eskatuko digute, aldeztu aurretik galdetu.

– Malaria Hego eta Erdialdeko Amerikan, Afrikan eta Asian aurki genezake. Ez dago



DANI BLANCO

Geroz eta gehiago izanik atzerriko bidaiatzeko ohitura harturikoak, orain dugu garaia bidaia osasun aldetik ere prestatzen hasteko, txangoa zapuztuko diguten arriskuak ekidinez

bere aurkako txertorik, eta botika hartu beharra dago, bai aurretik, bai bidaiaren zehar, baita itzuli eta epe bat osatu arte ere. Malaria dagoen ingururen batetara bagoaz, eulien aurkako sarea eta uxatzeko produktuak gomendagarriak dira.

– Osasun zerbitzurik ez duten inguruetara bagoaz, gure botikina eraman behar dugu. Gogoan izan botika bat hartzen ari bagara, zaila dela hainbat herrialdeetan aurkitzea, eta hemendik eraman behar dugula.

– Ez elikagai gordinek jan, eta egoki ontziratutako edariak bakarrik edan. Ur edangarri ziurrik ez badago, ura potabilizatzeko produktuak beharko ditugu.

– Ia herrialde gehienetan osasun laguntza egokia jasotzeko, aseguru egokia egitea komeni da. Gainontzean, eta arazoren bat badugu, gure poltsikotik ordaindu beharko dugu osasun zerbitzua. Europar zehar bidaiatzeko berriz, europar osasun txartela eskatu behar dugu, Gizarte Segurantzaren edozein bulegotan. Bi urteko balioa du, ondo

begiratu baliogarria dela aurrez eginga badugu.

Orain pentsatu, gero gozatzen. Ondo ibili! ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Baigorri. Egun baino gazteagoak ginen garaiak ziren, baigorriar gazte zenbaitek antolamendu gaitzari heldu ziotenekoak. Bertako gaiteroen hastape-

nak ezagutzeko suertekoak gu, geroztik ez dira gutxi izan eman dizkiguten pozak. Hizkuntza berak biltzen gintuenek, talde lana izan genuen elkargune kantuak uzta. Ez genuen gairik falta, zoritxarrez esan beharko dugu, borrokaren latzak maite genituen lagunak akabatuta, haiei kantatzea bilakatu genuen gure sorkuntzaren habi, inoiz txori kantaririk falta izan ez duena. Bezperako kantaldiak ditut gogoan. Eliza herritarrez lepo, aldi-

Nafarroaren Eguna

ro genuen kantu berriren bat estreinakoz emateko, gertakari berezi bati atxikia. Olivier Aranguren perkusionistaren bidez ezagutu genituen bere Radio Franceko orkestako lagunak, maila handiko musikariak, Bixentaineako afarian berea gozatzeko aukera eman ziguten. Et Incarnatus-ekoak ere bertan ezagutu genituen, entzuleek ahanzi ez dugun kontzertuak. Aurten, berritzen ari diren bertako gaiteroekin Lekeitioko Banda ariko da, ohi bezala profesional jarduna militantei burutuz. Hau ere, segur, nekez ahanzikiko da, nik neure belarriz entzundako entsaioa arrazoi. ■



BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

Euskara agiriak opari



IÑIGO AZKONA

I

Laster EGA emango zaionez
merezi ez duen horri,
gure hizkuntzaren hobe beharrez
test bat nahiko nuke jarri.
Izan dadila “ez dakitenean”
gabeziaren neurgarri...
eta “dakiten” batzuei ere
baietz primeran etorri!

IV

Hauetatik zein ez da zuzena
1) hala biz ala 2) hala bedi,
1) hobe ala 2) hobeagoa,
1) komeria ala 2) komeri,
1) hori guztia ala 2) guzti hori,
1) inauteri ala 2) ihauteri
1) polizia etxe, 2) komisaria
edota 3) komisaldegia?

II

Hiru hitz zerrenda hauetatik
esan zein ez den okerra:
1) Ospitalea, halitosia,
suspertu, hautsi, platera.
2) Ziur, jardun, urrun, harmonia,
zizarea, Ingalaterra.
3) Exijitu, armonia, ziza,
zerra eta motozerra.

V

“Gauzak”, “pertsonek” eta “egia”
zer da ezin dutena jasan?
“Auhendatzeak ez du merezi”
ez esan, ez hemen, ez han.
“Aldea beti prezioan datza”
pluralean nola esan:
“alde__ beti prezioan _____”,
bestela ezin da izan.

III

Honako hiru esaldietan
bakarra da zuzenena:
1) Euskalduna da gure hizkuntzaren
alde borrokatzen dena.
2) Euskalduna da erromerian
gogoz dantzatzeko duena.
3) Euskalduna da euskarak duen
oztopo nagusia.

VI

Euskal herritar denek euskaraz
erruz egingo balute,
azterketarik ez egitea
aise ulertuko nuke,
baina sasoia baino lehen EGA
oparitzaren truke,
gure hurrengo belaunaldiak
hobeto hitz egingo al dute?



DOINUA: Norteko ferrokarrilarenak.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Iñigo Astiz

«Poesia hilda dagoela diogu, eta hala ere, niri balio dit»

Egunez Berriako kazetaria da Iñigo Astiz (Iruñea, 1985) eta gauez poeta bihurtzen da. Susa argitaletxearekin *Baita hondakinak* ere liburua argitaratu du, Peicovichen plagioetatik Li Bairen soiltasunera, idazlearen espazio intimoetatik pasaz bide egiten duen poema bilduma.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco

Lur pixka bat hartu, ahoan sartu eta “pertsona bezain leku” sentitzeaz hitz egiten duzu liburua zabaltzen duen *Esperimentu geofagoa* /*(ab)orategian* poeman. Euskaldun izateari buruzko irakurketa pertsonala al da?

Hori da kurioa, euskaldun batek lurraz edo geografiaz hitz egiten badu, Euskal Herriaz ari dela. Eta horretaz ere hitz egin dezake, esperimentua oso karnala da... Hain justu esperimentu horretan dibertigarria dena da, haragizkotasan horretatik iristen zarela lurraldetasun ideia batera; kontraste horrek dibertitzen nau.

Objektuek, leku konkretuek, garrantzi berezia dute poemetan. Aulkiak, argi-etengailuak, Iruñeko harresiak...

Poemak idazten ditudanean inguruan daukadan materiala erabiltzen dut, eta materiala izan daiteke orain irakurtzen ari naizen Alberto Caeiroren liburuko esaldi bat, disparagailu bezala erabiltzeko; izan daiteke lorategiko lurra, hor dagoelako; izan daitezke etxeko objektuak... Ez dakit ilargia agertzen den...

Ez dut uste...

...eguzkia bai, baina larruan betiere... Ez daukat kapitalik —eta ez bakarrik diruarena— eskuaz harago dauden gauzak erabiltzeko. Gutxi gorabehera da... ekologia poetikoa [barre egin du]. Gauzek balio dute ideia abstraktuak konkretatzeko. Bizitza guztian gehien entzun izan dudana adibidea aulkiena da. “Hori aulki bat bezala da” edo “hori mahai bat bezala da”.



Aulkiak eta mahaia, ados. Baina audiogidak?

Museoak kristoren lekuak dira eta audiogida batek esplikatzen dizunean “hemen dago Babiloniako pieza bat” eta ematen dituzu hiru urrats eta dago beste objektu bat handik ez dakit zenbat kilometrotatik ekarritakoa eta hiru mende aurreratu dituzu eta bitartean audiogida ari zaizu esplikatzen Bigarren Mundu Gerran izorratu zela museoeko teilatuaren zati bat bonba bat erori zelako eta... Ze estuasuna, ezta? Dena dago hemen, goazen hemendik lehenbailehen! Baina denok erabili dugu audiogidaren bat; poema hori izan daiteke aldarrikapen bat, bizitzaren hondakin horietan ere badagoela poesia puska bat.

Badirudi ETB1 poemak errealitatearen eta hiper-errealitatearen talka planteatzen duela.

Jean Baudrillard irakurria dut eta hor dago, ez dakit zein punturaino egin duen poemarainoko bidea ze, oso gauza sinplea da, sofán nago,



“Liburu honetakoa Frankenstein erako poesia da, hartu poeta baten hanka, lotu beste baten besoari eta, begira, ze munstro polita”.

ETB ikusten dut eta itsas lehoiak ikusten ditut, grazia egiten didate... Baina hipererrealitatearena hor dago. Liburuan horrekin batera agertzen dira gorputza, haragia, hazia... eskuarekin ukitu daitezkeen gauzak. Badago bien arteko kontrastea. [Telebista oso ozen jarri dute kazetaria eta elkarrizketatua berbetan ari diren tabernan]. Nahi duzu mahaiz aldatzea?

Bai. [Kazetaria eta elkarrizketatua telebista hiper-errealetik urrundu dira]. Esteban Peicovichen *Poemas plagiados*...

Bai, plagiatu dut [barre egin du].

Telefono gidaren poema hortik aterea da, beraz?

Bai, ikusi nuen eta esan nuen “ze onal”. Buenos Airesko gidarekin eta Madrilgoarekin eginak ditu poemak eta esan nuen “nik ere egingo dut”. Gero plagioa zela pentsatu nuen, baina esan nuen “*Poemas plagiados* izena duen liburu bat plagiatzeko zer beldur edukiko dut?”. Plagio gehiago ere badaude liburuan... Tira, zineman “omenaldi” esaten diote horri: Philip Larkinen poema bat itzulia dago, ez bakarrik hizkuntzaz, gorputzez eta errealitatez ere bai; Allen Ginsbergen poema bat ere itzuli dut, bere horretan. Eta beste poema asko ere badira, ez itzuliak edo lapurtuak, baina... Ez dakit, zera egin dut: “Li Bai botako dut Keneth Rexrothen kontra, ea zer gertatzen den”, eta poema bat ateratzen da, ze desastrea!

Text-jockey lanetan aritu zara.

Euskalerria Irratiko tertulian Angel Errok, Hedoi Etxartek eta hirurok osatzen dugun hirukoteak Poeta Zonbien Kluba deitzen diogu. Aldarrikapena da: “Poesia hilda dago, baina aizu, nik aurkitu dut gorpua eta nik jango dut” [barre egin du]. Frankenstein erako poesia da, hartu poeta baten hanka, lotu beste baten besoari eta, begira, ze munstro polita.

Liburuaren imaginarioa urbanoa da, baina... Asfalto azpian baratzea bilatu duzula esan liteke?

Ez dakit hain urbanoa den, ez dakit urbanoa edo rurala naizen... Uste dut tentsio batean dagoela liburua, baratzen eta asfaltoaren artean, igogailuaren eta John Deere traktorearen artean... Ez dakit harrien azpian hondartza bilatu ote dudan, uste dut harriak altxatzea bakarrik nahikoa dela. Azpian zer dagoen ikusteko proposamena da eta karra-marroak baldin badaude, almortzu bat egingo dugu. Era berean, badago bitarteko gauzen aldeko dei bat. *Poetika sindikal* garaikidea, adibidez, ez da iraultzari buruzko poema bat,

iraultzaren suzedaneo bati buruzkoa baizik. Ordezko horienganako atentzioa dago, kritikoa, bai, baina ez “honek ez du ezertarako balio” esateko, “hemen badago poesia egiteko aukera” esateko baizik. Hondakinena ere hortik doa: poesia hilda dagoela esaten dugu, eta hala ere, niri balio dit; Euskal Herriak ez duela estatutik esaten dugu, eta hala ere, niri balio dit; iraultza bukatuta dagoela esaten dugu, eta hala ere, niri sindikatuan zazpi orduz aritzea eztabaidatzen “berandu” edo “ez garaiz” esan behar ote dugun, horrek ere balio dit. Hau da, eskura dau den gauzekin ere egin daitekeela zerbait.

Denborak liburuan daukan pisua deigarria da, *Esperimentu pre-sentziala eskaileretan* poeman adibidez. Gehiegi kalkulatzen ditugu instantek?

Une batek zenbaterainoko garrantzia izan dezakeen zure bizitzan, ikaragarria da. Eta izan daiteke edozein une, auto-istripu bat daukazu une batengatik; laztan batek une bat irauten du eta izorratu diezazuke bizitza, badakizulako laztan hori zela balio zuena –oso erromantiko geratu da hori–; une txikien bila jotzen dugu sexura, nahiz eta, jainkoari esker, une bat baino gehiago irauten duen. Bazterreko kontua izan daiteke hau bere errealitate gordinen hartzen badugu, ze uneak saltzen dira, baina prozesatuta, estudiatuta bezala. Baina gero badaude une gordinak eta horiek asko interesatzen zaizkit, ez bakarrik poemetarako.

Espazio intimoetatik komunak direneta (azken poemako Euskal Herria, kasu) doa liburu.

Gutxi gorabehera abertzalea den familia batetik datorren edonork Euskal Herriarekin daukan harremana oso intimoa da; eta euskal kazetaritzan ari bazara oso ondo ulertzen duzu zer den sakrifizio pertsonala eta sakrifizio supra-pertsonala. Nik behintzat horrela bizi dut, espazio handiagoak ere intimitatearekin lotuta daudela uste dut. Ideia abstraktuak eta gorputz konkretuak agertzen dira etengabe poema liburuan, eta biak elkartzean batzuetan kirrinka egiten du, besteetan karranka... Eta intimitate hori, askotan, badirudi, gaizki ulertu dela nazio erai-kuntzatik: [Pantxo eta Peioren *Batasuna* kantatzen hasi da] “Gerokoak geroko utzi”... Eta zer da gerokoa? Harrikoa egitea da gerokoa? Orduan borroka oso bat uzten

“Gutxi gorabehera abertzalea den familia batetik datorren edonork Euskal Herriarekin daukan harremana oso intimoa da”

“Badakit hau poema liburu bat besterik ez dela. Espektatibarik ez izate horrek, printzipioz gauza inutil bat izateak, kristoren askatasuna ematen dit nahi dudana egiteko”

duzu alde batera, feminismoarena kasu horretan. Intimitate horretan sekulako borroka daude, intimitate horretan gertatzen da mundua; hori ez da gauza txikia, hori feministek esaten zuten “pertsonala politikoa da” lema da. Askotan badirudi “Euskal Herria *hau* da” esan nahi dugula, baina hori kontrastatu behar da gorputzekin, ezin duzu gauza bat antolatu gorputzak ahaztuta; eta ezin duzu gorputza bizi beste guztiaz ahaztuta.

Testu hauetako batzuk Euskalerria Irratian irakurri zenituen. Uhin bidez emititzeko idatzi ondoren, nola ikusten dituzu orain liburuan?

Liburua orain ikusi dut eta oraindik pentsatzen dut ez dela nirea. Gainera ikusten da poema bilduma bat dela, grazia gehiagorekin edo gutxiagorekin antolatua, baina ez zen liburu izateko pentsatu. Irakurleak liburuago ikusiko du nik baino.

Kazetariok testugintzan daukagun fama txarra- rekin nola ezkontzen da hau bezalako poema liburu on bat?

Gaueko hamarretatik aurrera... eta ez dut uste ezkontzen direnik; edo, ezkontzen badira, pelikula italiarretako bikoteak bezala da [zapo-italieraz elkarri oihuka ari den bikotea imitatu du]. Diferentzia handiena entregateguna da, artikuluek beti daukate eta poemek ez. Ez du inork ezer espero, inork ez daki poemak idazten ari ote naizen, munduari berdin zaio, niri ere momentu batzuetan kasik berdin zait... Nire bizitza jokatzeko ari naiz honekin, baina oso garrantzitsua izanda ere, badakit poema liburu bat besterik ez dela. Espektatibarik ez izate horrek, printzipioz gauza inutil

bat izateak, kristoren askatasuna ematen dit nahi dudana egiteko.

Baina gauza inutila da?

Kazetaritzarekin konparatuta, oso diferentea da. Ez da inutila, baina ez dauka berehalako funtzio bat, honekin inork ez du denbora gutxiagoan janaria prestatuko lanera azkarra- go iristeko, akaso badena gaur egungo behar bat. Eta ez da funtzioa bakarrik, espektatibak dira. Egin edo ez egin, inork ez dit konturik eskatuko poemekin. Artikuluekin bai. Eta hori niretzat kristorena da, besteei poemak plagiatzerainokoa. ■



Liburuak

KRITIKA

Emakume beltz arruntarentzat


Helduen literatura

Aritz Galarraga

BADA AMAIA LASA BAT, poeta, euskal literaturaren mundutxoan hartu duena tarte. Meritua, besteren gainetik: emakumearentzat arrotz zen lurraldean hasi zela eraikitzen alfabeto berri bat. Dena zegoen egiteke eta egiteko, beraz. Eta bekatutik eta amatasunetik libro den emetasuna ekarri zuen berak. Amaia Lasa da, Koldo Izagirreraren hitzetan, gure literaturaren lehen emakumea, dakarrelako lehenengoz emakumea gure letretara.

Baina izan bada beste Amaia Lasa bat, kasu hone-tan narratzailea. Eta izan badu narrazio bilduma bat, bakarra, 88koa: *Malintxearen gerizpean*. Poesia 70etan, narrazio laburra 80etan. Ez pentsa, Sarrionandia eta Atxaga ere orduantxe ari ziren ipuinekin, garai egokia izango zuten horretarako aurrekoen aldean. Kontua da narrazio laburraren eremuan, halaber, desertua zuela Lasak aurretik. Eta berak ekarri zuela lehenengoz, Arantxa Urretabizkaiarekin batera, emakumea euskarazko narrazio laburrera ere.

Emakumea edo emakumeak, egia esatera. Ipuin bilduma –poema pare bat ere



Malintxearen gerizpean.
Amaia Lasa Alegria.
Pamiela, 1988.

badu, baina tira–, bi multzotan bana baitaiteke: Euskal Herriko ipuinak eta Euskal Herri-tik landakoak –badakit ez dela sailkapen sobera akademikoa–. Eta Euskal Herrikoak ez zaizkit hainbeste interesatu, lirikoak dira, iradokikorrak. Baina Euskal Herri-tik landakoak bai, defendatzeko emakumeak ekarri zituela Lasak gure letretara. Nikaraguan giro-tuta daude hiru ipuin, laugarren bat AEBetan, New York hiriko Harlem auzoan.

Eta horiek dakarte berrikuntza, egiten baitute ez soilik genero aldetik ekarpena, baizik eta baita ere klase eta arraza aldetikoa. Nikaraguako iraultza sandinistaren baitan, bertako emakume txiroen esperientzia azaltzen zaigu, gerrillariena, kanpotik etorri den yankiak iraultza egiten ari den nikaraguarrari lezioak nola ematen dizkion, eta azken honen akidura eta haserrea, betiko kritikaren aurrean: “Gaingiroki begiratzen gaituzue eta zuen herrietan egin ez duzuen, guk, orain, berehalaxe egitea nahi duzue. Zuek ere azken finean dolarrekin etorri eta epaitzeko eskubidearekin sentitzen zarete”. Eta Harlemgo Ritak nola esaten duen hau: “Kaleko edozein izkinitan, emakumea eta beltza naizela jakinarazten didate”. Edota nola sentitzen den “beti zurien kakak kentzen”.

Marisa Young Blanco Nikaraguako poetisak idatzitako hitzaurre argigarrian, esaten da liburua emakumeen arteko elkarrizketa dela: “*Y justo ahora cuando escribo, siento que estoy conversando contigo, compañera*”. Liburua amaitu dudanean ohartu naiz osoki liburua emakume beltz arruntarentzat idatzia dagoela, bai, ni ere banaizen emakume beltz arruntarentzat.



NEVERMIND
TRIO
Be



JORGE
ABADÍAS
A Tablero



JUAN
DE DIEGO
“TRAKAS”
Erbestea



JERÓNIMO
MARTÍN
SEXTETO
Quinoa



HASIER
OLEAGA
*Cantus
Caterva*

ERRABAL
J | A | Z | Z

94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabaljazz.com



Diskoak

IKER BARANDIARAN



Beltza. Bye, bai Cash
Askoren artean.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 67'40".
10 euro.

Cashen ondare ireki eta sailkaezina

JOHNNY CASH musikari amerikarra oso handia izan zen, eta esanguratsua da azken urteotan mota askotako estiloko musikariek haren erakutsi duten miresmena, baita Euskal Herrian ere. Seguruenik horretan inspiratuta Bilbo-ko Pintu-k, iraganean The Clash taldearen omenez egin zuen bezala, Johnny Cashen kantuak bere erara musikatuko zituen taldeak batzeari ekin zion. 20 talde batu ditu. Horien artean Zarama (country-rock), Petti (rock-and-roll

slide), Vomito (rock urbanoa, ia heavy), Travellin Brothers (ia orkestrala), Hash (rock-blues), Morfi Grey (elektro-post-punk), Porco Bravo (punk-rock-and-roll), Rat-Zinger (punk-rock) eta Carniceritos del Norte (punk) dira ezagunenak, baina badira beste asko, euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez grunge, noise, metal eta bestelakoak berrinterpretatzen dituztenak.

www.hotsak.com

Pintu, diskoaren koordinatzailea

«Johnny Cashen legatu osoa da ona, ez dago ezer soberan»

Lehen The Clashen omenezko lana koordinatu zenuen, eta orain Johnny Cashena. Nolatan sartzen zara halako saltsatan?

Saltseroa naizelako eta halako ekimenek bizirik egoten laguntzen didatelako.

Zer da Cashek utzi digun onena?

Bere legatu osoa, ez dago ezer soberan. Eta Cash bera jarraitzeko moduko pertsona izan zen, warrior bat!

Nola aukeratu zenituen taldeak? Zerk batzen ditu taldeok, Johnny Cashengan duten miresmenaz harago?

Proiektu honek hiru urte luze hartu ditu. Talde batzuk bidean gelditu dira, baina diskoan dauden guztiak nire lagunak dira, guztiek maite dute musika eta musikarekin iraultza egin daitekeela uste dute gainera.

Zer nolako harrera izan du orain arte diskoak?

Diskoa oso harrera ona izaten ari da, espero baino handiagoa eta berari esker jende gazte asko

“Morfiren parte hartzea lortuta lasai asko hil naiteke. Halako pertsonak ezagutu eta beraiekin lan egitea izan da garrantzitsuenak”.



Johnny Cash ezagutzen ari da; hala, Cashek utzitakoa ikertzen eta ezagutzen hasi dira. Hori da nahi nuena, oso positiboa da.

Diskoa musika estilotan oso irekia da. Hala irtengo zela uste zenuen?

Johnny Cash oso irekia izan zen musikan eta beste gauza askotan; eta diskoa ere halakoa da: estilo ugari daude bere baitan.

Ez nuen espero bertan Zarama aurkitzea. Nolatan izan zen?

Berriro jotzeari ekin ziotenean aproposa ikusi nuen eta gonbidapena luzatu nien. Azkenean onartu zuten.

La Banda Traperas del Rio-ko abeslari Morfik parte hartzea oso berezia da...

Bai, lan honetako lorpen handienetakoa da. La Banda Traperas del Rioren zale amorratua naiz eta saiakera egin nuen. Morfik diskoan parte hartzea lortuta lasai asko hil naiteke. Hori da garrantzitsuenak, halako pertsonak ezagutu eta beraiekin lan egiteko aukera eduki izana.

Diskoaren aurkezpenik aurreikusi duzu?

Bai, maiatzaren 19an Vomito, Rat-Zinger eta Carniceritos del Norte taldeak Leio-ako Gaztetxean batuko dira eta kontzertua DVDn jasoko dut. ■



Ezpalak

JON TORNER

Dantza tradizionala, “babestu beharreko ondarea”

IKER GARATZABAL



EUSKAL HERRI osoko dantzari eta dantzazaleek *Euskal dantzaren adierazpena* aurkeztu dute Eibarraren (Gipuzkoa). “Euskal dantza tradizionala

babestu beharreko ondarea da”, diote 160 sinatzaileek: “Altxor hau transmititzen jarraitzeko, ezinbestekoa dugu gure kulturaren jarduera oparo hau guztion artean zaindu eta hedatzea”. Adierazpenak jasotako eskaera batzuk:

- Euskal dantza tradizionalaren ondare izaera aitortzen dugu eta hori zaintzeko ardura gizarte, komunikabide eta erakundeekin partekatu nahi dugu.
- Dantzaren dokumentazio zentro publikoa behar dugu.


- Dantza tradizionalaren formazioa egituratu eta sendotzeko beharra dugu. Euskal dantza tradizionala, ahalik eta mailarik sakonenean ikasteko aukera eskainiko duen ikastegia behar dugu.

- Dantza tradizionalaren ikerketa sistematizatu eta ikertzaile sarea berrantolatuta, jakintza alorrean diharduten elkarte, erakunde eta unibertsitateen parte-hartze aktiboaren premia dugu.

Sinatzaileetako batzuk: Euskal Dantzarien Biltzarreko lurralde guztietako lehendakariak, Juan Antonio Urbeltz, Philippe Oianburu, Edu Muruamendiarrak, Jon Maya, Jose Ignazio Ansorena eta Oier Araolaza.

Bidea helburu eta Kataluniako Fora de Quadre elkarteek indarkeriarik gabeko aktibismoak Euskal Herriari azken 50 urteotan egin dion ekarpenari buruzko *Ziztadak* dokumentala egin dute. “Baztertutako historiaren” berri eman nahi izan dute eta ikastolak, intsumisia, Itoizko urtegia, demoak, Bilboko Kukutza gaztetxea eta beste hamaika esperientzia bildu dituzte. Guztira 21 lagun elkarriketatu dituzte *500 ejemplos de no violencia. Otra forma de contar la historia* liburuan oinarritutako dokumentalean.

• Daniel Castillejo Gasteizko Artium museoko zuzendariaren hitzak jaso ditu *Berriak*, zentroaren 10. urteurrenean: «Kontzienteki egin genuen izaera ‘enblematikoa’ ez zuen museoaren alde. (...) Lanak erakusteko baldintza onenak izan nahi genituen; edukia lehenetsi nahi genuen, ez edukiontzia, azken hori ere interesgarria izan arren. (...) Gizartearekin izan duen harremanean une zailak izan ditu; hiri erdian zegoen txaplata ematen zuen, herritarrekiko gertutasunik gabe. Horrez gain, museo guztiok pairatzen dugun itzala dago, *Guggenheim efektua* delakoa. (...) Kultura zentroak eta museoak opakuak izan ohi dira, eta hori kontraesankorra da. Deigarria da opakua den erakunde bat sormen eta adierazpen askatasuna aldarrikatzen ikustea».



STONE WORLD REVIEW



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

**BIZKAIA
BIZIA**

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Ezina ikusaraziz egina

Gazta zati bat. Euskal Herria, 2012 (99 minutu).

Zuzendaria: Jon Maia. Muntaia: Eriz Zapirain. Argazkia:

Juantxo Sardon. Musika: Xabier Solano eta Zigor Lanpre.

Ekoizpena: Nazioen Mundua (Angel Oiarbide).



Luix gaztagilea, Jon Maia eta Angel Oiarbiderekin.

GIZA ESKUBIDEEN X. ZINEMALDIAN estreinatu zen *Gazta zati bat* dokumentala, Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Ingurune egokia inondik ere. Gizabanakook erabakitzeo dugun eskubidearen gainean mamitzen da filma eta, gaiaz zein filmaz mintzatzeko parada izan genuen bertaratuok.

Filmaren estetikaz zenbait hitz, lehenik: dokumentala xaloe da, egileek modu naturalean sortu zen ideia bati jarraikiz eginda. Hartara, filma ez da ohikoa, ausarta da, lotsagabea (kolokioa kudeatu zuen Begoña del Tesok erranen lukeen moduan, *ganberroa* da). Lotsagabea baina duina. Izan ere, filmaren forma ulertzeko edukia ezagutu beharra dago, *gaztaren* historia, historia eta bidaiaren abiapuntua... Eskoziara. Honek guztiak ez du kentzen, bistan da, egitasmoari egokitutako gidoia irudimentsua izatea, muntaiaren lan eskergea, etxeko tresnez filmatu dutenen eta filmatzen eskarmentua dutenen irudien uztartze-egokitzapena, ezta musika arduraz eta adorez egokitu dutenen lana ere duina izatea.

Gaztaren funtsaz eta historiaz nasai idazteko berriz, munduko nazio ukatu adina berba beharko genuke. Hasteko, hamaika lagunen izenek merezi dute aipamen berezia. Denona ezean, hona bakar batzuen: Mikel Garmendia (haren bikote Lourdesek filmean hartzen duen munta barne) eta Loinaz Urrestarazu. Angel Oiarbide (Garmendiaren espirituaren hauspo-tzailea, dokumentaleko aktore nagusia eta bikaina: egitasmoaren –erabakitzeo eskubidearen– bisualizatzaia-

lea) eta Asier Oiarbide: hurrenez hurren, ezker abertzaleko eta EAJko zinegotziak. Aspaldion Eskoziaratu zen Xavier katalana. Kolokioan honen ondoan egon zen Asier, Nazio Batuen Erakunderaino gazta puxka eramane zuena. Eta, noski, gaztaren egilea: Luix. Eta beste zenbait... Eta hainbat... Mundu bat!

Munduan nazio ukatua eta ezagutu gabea den Euskal Herriko ereduia da protagonista nagusia: Idiazabal herria. Hiri zabaleko herritarrak: *izaldarrak*. Eskoziaraino egindako joan-etorriko bidaiaren ondoren berezko egitasmoa sortu duena. Aro berrian espiritua berria erakutsi duen herri aitzindaria.

Ikaspenak azkenik: demokrazia, beraz, herriaren gobernamentua, ekimen oso garrantzizkoa da politikari hautatuen esku soilik uzteko. Politika hitz kutsatuak gazta usaina hartu behar du, herritarren usaina berrartu. Horretarako baina, jendarteak batu beharra dauka, Idiazabalgo espiritua zabaldu Luixek gazta partekatzen duen modura. Unea iritsi da, Eskoziaren eta Euskal Herriaren unea. Erabakitzeo unea.

Ezinezkoa ikusaraziz. Angel Oiarbidek dioenez: bisualizatzen. Edota Luixek dioenez: horixe!



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.


Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Zein da?

Ramirok bidali dizkigu aste hone-tako txistekak. Ea gustuko ditu-zuen eta zuen txisterik onenak ere bidaltzen dizkiguzuen!

- Zein herrialdetan ibiltzen da jende gutxien katean?
- ?!?
- Arabian! (Hara! Bi han!)

- Zein da drogarik onena duen hiria?
- ?!?
- Krakovia (krak hobia)

- Non dago emigratzen duen jende portzentajerik handiena?
- ?!?
- Estonian! (Badakizue, esto-nian... alegia, ez dagoenean...).

Soluzioa


T	E	A	L	L	A	A	O	S	A
T	B	R	E	A	L	L	A	A	O
D	P	O	B	R	E	A	L	L	A
P	O	B	R	E	A	L	L	A	A
L	E	T	A	M	I	Z	K	I	N
L	E	T	A	M	I	Z	K	I	N
L	E	T	A	M	I	Z	K	I	N
L	E	T	A	M	I	Z	K	I	N
L	E	T	A	M	I	Z	K	I	N
L	E	T	A	M	I	Z	K	I	N



argia


www.argia.com/multimedia

bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean




Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak. Izan kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak eta abar.

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Bizi-itxaropena European




EL PAÍS

BIZI-ITXAROPENA zenbaki bat baino ez da eta herrialde bateko biztanleek heriotzaren unean duten batez beste-ko adina adierazten du. European egindako neurketen arabera, 2010ean Suediak zuen bizi-itxaropen handiena (79,6 urte) eta Lituaniak txikiena (68). Gizonek eta emakumeek bizi-itxaropen desberdina izaten dute; Europa-ko emakumeen artean Frantziako eta Espainiako estatu-estatu emakumeak dira bizi-itxaropen handiena dutenak:

85,3 urte. Bulgariako emakumeek dute txikiena: 77,4 urte.

2005. urtean Europako Batzordeak beste adierazle bat jarri zuen abian: ezgaitasunik gabeko bizi-itxaropena (EBI), hau da, bizi-kalitatea neurtzen duen indizea; pertsona bat urte luzez bizi daiteke, baina askotan, azken



Bizi-itxaropena munduan.

urteetan ezgaitua egoten da, eta horrek kostu handiak eragiten dizkio gizarteari. Indize berriaren arabera oso garbi azaltzen dira Europako herrialdeen artean bizi-kalitatearen alorrean dauden desberdintasunak: 2010ean Suedian EBI 71,7 urtekoa zen, eta Eslovakian, aldiz, 52,3koa.

EBIk garrantzi handia izango du Gizarte Segurantzaren inguruko gastu-prospekzioak egiteko. Zenbat eta handiagoa izan, lan-bizitza gero eta luzeagoa izatea planteatu daiteke, eta zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta kostu sozial handiagoei aurre egin beharko zaie.

Azken datuen arabera badirudi European oro har EBI aldatu gabe dagoela baina hegoaldeko zenbait herrialdetan, Espainian, Italian eta Portugalen, laburtzen ari dela.



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Antartikako izotz-maparen aldaketaren mapa

2010ean Europako Espazio Agentziak (ESA) Cryosat satelitea bidali zuen espaziora, Antartikako izotz-mailaren aldaketak neurtzeko. Apirilaren 24an aurkeztu zuten 2010-2011ko neguan izotz-geruzak izan duen bilakabidea.

<http://ttiki.com/37007> (Gaztelaniaz)

<http://ttiki.com/37008> (Frantsesez)

Txakurren eta katuen lepokoetako 60 produktu erretiratu dituzte

Txakurrek eta katuek arkakusoan aurkako lepokoak izaten dituzte. Berriki jakin izan dugu Frantzia lepokoetan erabiltzen ziren 60 produktu erretiratu dituztela, batez ere umeen osasunean sor ditzaketen arazoak direla eta.

<http://ttiki.com/37009> (Frantsesez)

Unibertso behagarria hobeto ulertzeko super-kalkulagailua

Segundoko 2.000 bilioi eragiketa egin dezakeen ordenagailuari esker, ezagutzen dugun unibertso zatiaren "mapa" egiteko aukera gehiago izango dugu. Lortuko diren datuen bolumena –lehen emaitzak maiatz amaierarako iragarri dituzte– 30 milioi DVDtan sartzen denaren baliokidea da.

<http://ttiki.com/37010> (Gaztelaniaz)

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Bermuta

EGIA DA, alemanen *wormut* hitzetik dator bermut. Bermut ardoa, edo dena delakoa... Dena delakoa diot, ardo azukre alkohol eta landareekin egindako edabea-ri ez baitakit nola deitu. Edabe, horixe!

Landareekin osatutako ardoak hartzea ez da oraingoxeko ohitura. Dakigula behintzat, grekoek dagoenerako 2.000 urtetik gora daramate ardo horiekin osatzen. Mahats-ardo guztiak bezala Mediterra- neo osoan zabaltzen ziren horiek ere. Egun bermut ezagunenak Italian, Frantzia eta Katalunia aldean egiten dira.

Ardoa, berez osasungarria, osatu nahi den gaitza- ren arabera landareekin osatuta erabiltzen da. Horretarako, batik bat, erdipurdiko ardo zuriak dara- biltzate. Ardo horiek gogortu egin behar dira, alko- ho- la gehituta gogortu, alegia. Errazago edan ahal izate- ko gozagarriren bat ere eranstean zaio, jeneralean azukre soila, gordinik edo erreta. Horren arabera ber- muta zuria ala gorria izango da.

Sendabelarrak? Denetik! Iltzea (*Syzygium aroma- tium*), kina zuhaitza (*Cinchona* sp.), jengibreia (*Zingiber officinale*), oreganoa (*Origanum majorana*), isipu-belarra (*Hyssopus officinalis*), ipurua (*Juniperus communis*), karda- momoa (*Elettaria cardamomum*), larranbiloa (*Matricaria chamomila*), martorria (*Coriandrum sativum*), asentsio- belarra (*Artemisia absinthium*), kanela (*Cinnamomum verum*), garrazkien azalak eta abarrek osatzen du ber- mutgintzan erabilitako landareen zerrenda. Asko kanpotik ekarritako espezia edo landare bitxi, exotiko eta arrotzak dira, edariari ospea eta egin-zailaren itxu- ra emango diotenak. Denak, ia denak, mikatzak dira edo eta, gustukoa edo ez, urrina dute. Bermutgile bakoitzak bere trikimailuak ditu, baina ezkutuko belar nahasketa da kakoa.



TOM FISCHER

Ipurua (goian) eta martorria (eskuinean), bermutgintzan erabiltzen diren landareetako bi.



H. ZELL-CC BY SA

Asko hedatzen ari da bermuta eta tankerako edabeak edateko ohitura. Jendearen gustua asmatzen ez da zaila: gozoa eta mikatza nahasi, lan- dareen urrin natura- lekin dotoretu eta osasungarria dela zabaltzea. Antzeko edari ugari dago: Katalunian ratafia harrigarriak dituzte, Galizian duten uxuala aukera ikusgarria da eta urrutira gabe geurean patxarana.



Biberoak SAT Legu

C/ Goitoltza Auzoa, 36 · 48196 Lezama Bizkaia · Telf: 944556198
biberoaklegu@gmail.com · <http://www.biberoaklegu.com>



© 660 745 774 / 699 152 282

milorri@usurbil.com

Usurbil

milorrilorezaintzaekologikoa.blogspot.com

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Hitler eta Wittgenstein, ikaskide

BUNDESARCHIV



Ezkerrean, Linzeko *Realschule*ko ikasle talde baten argazkia 1901ean. Eskuinean, alboko argazkiaren xehetasunean, eskolako ikasle ezagunenak: Ludwig Wittgenstein (1889-1951) eta Adolf Hitler (1889-1945).

VIENA (AUSTROHUNGARIAR INPERIOA), 1889KO APIRILAREN 26A. Ludwig Wittgenstein filosofoa jaio zen. Adolf Hitlerrek sei eguneko tarte atera zion jaiotzean, apirilaren 20an sortu baitzen, Braunauen, Linzetik hurbil dagoen herririka batean. Baina abantaila hori erraz jango zion filosofoak ikasle urteetan: biek Linzeko *Realschulen* ikasi zuten, baina Hitlerrek ikasturte bat errepikatu behar izan zuen, eta Wittgenstein, aldiz, ikasturte bat aurreratu zuten, emaitza bikainak medio. Horrenbestez, Ludwigekiko bi urteko atzerapenez amaitu zuen Adolfo bigarren hezkuntza.

Gainera, Wittgenstein familia inperioko aberatsenetakoa zen. Hitlerren aitak, aldiz, gaizki kudeatu zituen bere lurrak eta familiak arazo ekonomikoak izan zituen. Erabat dokumentatu gabeko hipotesi batek dio Hitlerren aitak Alois seme zaharrena Wittgensteintarrenera bidali zuela lanera.

Eta karanbola biribiltzeko, Hitlerrek zera idatzi zuen bere *Mein Kampf* ezagunaren 11. orrialdean: “Realschulen judutar gazte bat ezagutu nuen. Denak erne geunden harekin harremana izaterakoa, baina haren uzkurtsunak eta jarrera bitxiak soilik bultzatu gintuzten zuhur izatera”.

Gero, 1938an, Austria anexionatu ondoren Linzen bertan emandako hitzaldi jendetsuan, Hitlerrek *verräter* (traidore) esan zien bertako juduei. Ludwig Wittgensteinen aitona-amonetatik hiru judutarrak ziren.

Hori guztia kontuan hartuta, hainbat historialarik Wittgenstein ikusi dute Hitlerren antisemitismoaren jatorrian, Kimberley Cornish australiarak *The Jew of Linz* (1998) liburuan jaso bezala.

Logikoa dirudi ikaskide aberatsago eta adimentsuagoak Hitlerren inbidia piztu izanak. Baina goiko argazkia eta eskolako datuak dira biek elkar ezagutzen zutenaren froga bakarrak. Hitlerrek, *Mein Kampf*-en, ez du ikaskide judutarraren izenik aipatzen. Gainera, Wittgenstein aitona-amona judutarrak protestantismora bihurtu ziren, eta Ludwig katolizismoan hezi zuten, Hitler bera bezala. Hala, Hitlerrek ez zuen zertan Wittgensteinen jatorri judutarraren berri izan.


Hala gertatu bazen, Wittgenstein Hitlerren antisemitismoa eragin zuten arrazoi ugarietako bat izan zela esatea zilegi litzateke. Baina Holokaustoak Hitler haurraren ezinikusia baino sorburu sakon eta zabalagoa du.



Arrastoak

Erromatar emakumeen mikroredituak

PONPEIAN, Granio Romano-ren etxean, negozio juridikoei buruzko hainbat epigrafe aurkitu zituzten, besteak beste Faustilla mailegu-emalari buruzkoak: beste emakume batzuei maileguak ematen zizkien %6,25eko interesean, eta berme moduan emakumeek objektu pertsonalak uzten zizkieten. Carmen Lazaro Bartzelonako Jaume I.a unibertsitateko ikertzailearen arabera, Antzinako Erroman, emakumeek debekatua zuten banka eta truke jardueretan aritzea, baina mikroreditu moduko horiek ez zuten gizona tutoreen baimenik behar, eta hala, hainbat emakume erromatar legearen oztupoak gainditu eta enpresari edo merkatarri bihurtu ziren. Inperioren etengabeko gerren ondorioz, hirietan gizon gutxi geratu ohi ziren, eta horrek ere negozio-emakumeen jardura bultzatu zuen.



Zero Waste biltzarra

Maiatzetik Gipuzkoa

Zero Zabor lurralde

Maiatzaren 11tik 13ra Donostian bilduko da Zero Waste Europe (ZWE) koalizioaren batzarra. Aukera baliatuko du bere atxikimendua azaltzeko Gipuzkoan hondakinen gaikako bilketa orokortua sustatzen duten talde eta erakundeei.

PELLO ZUBIRIA



Zubietako errauste plantaren kontrako mugimenduaren mobilizazioa 2011ko irailean, Donostiako estropadetan.

ETXEAN DAUKAZUNAZ JABETZEKO atzerrira urrundu behar duzu batzuetan. Urrutiagotik begiratu, bertako zalapartatik aterata. Iazko urrian Hernaniko alkate Luis Intxauspe lehenik harritu eta ondoren emozionatu egin zen Italiako Capannorin hitzaldia txaloka moztu zionean Paul Connetek. *Rifiuti Zero* mugimendukoek deituta Intxauspe azaltzen ari zen Hernanin nola egi-

ten den Atez Ateko bilketa. Hondakinak uzteko zintzilikarioa erakutsi zuenean Connet *Zero Waste* mugimenduaren *guru* famatuena zutitu zen esanez sekulako aurrerapena iruditzen zitzaioela zer eta... Gipuzkoan hainbestek itsusi atzerakoi inposatzaile izendatutako sistema!

Paul Connetek alkateari adierazi zion Euskal Herrian hondakinak gutxitzeko egiten diren ahaleginak

ezagutzeko asmoa. Maiatzaren 11n beteko du hitza. European eta munduan hondakinen kudeaketa burutsuago baten alde lanean ari den koalizio handietako batek, Zero Waste Europek (ZWE) bere begiekin ikusi nahi du gipuzkoarrak zaborren errauste proiektu batetik abiatuta Zero Zabor estrategia baterantz egiten ari diren trantsizioa. Eta bide batez, erauntsi eta trumoi



AMBIENTE FUTURO

Italiako Capannorin burututako ekitaldi batean ageri dira ezkerrean Rossano Ercolini italiarra eta eskuinean Paul Connet iparramerikarra.

artean horretarako lanean ari direnei atxikimendua azaldu. Hiru egunen egitaraua haien webgunean daukate ikusgai: *Annual Zero Waste Europe meeting in Gipuzkoa – 11-13th May 2012*.

Erakundeak eta militanteak

ZWE koalizio bat da hiru erakunde nagusik osatua. Lehen GAIA, zeinaren siglak bi modutan irakur baitaitezke: *Global Anti-Incinerator Alliance* eta *Global Alliance for Incinerator Alternatives*. Alegia, hondakinen erraustetaren kontra adina ari direla borrokan erraustu beharrik gabeko alternatiben alde. GAIAren Europarako ordezkaria Joan Marc Simón katalana da ZWEren koordinatzailea ere.

GAIAko bazkide da Ekologistak Martxan elkarte. Hori dela eta, 2007an Gipuzkoako Hondarribian egin zuen erakundeak mundu mailako batzarra, orduan Txingudin ezarri nahi zen errauste plantaren proiektuari aurre egiteko.

Munduko kontinente guztietan presente, GAIAk lan handia burutzen du justizia klimatikoaren inguruan, esan liteke bera izan dela ingelesez *Zero Waste* deitu dena munduan zabaldu duena. Itzulpen eta zehaztapen ezberdinekin, egoerak oso ezberdinak direlako Indian, Filipinetan, Argentinan edo Katalunian.

Asian eta Hego Amerikan, esaterako, gogor borrokatu dira erraustekailuak instalatu nahi dituzten multinazionalen aurrean kaleko hondakin biltzaileen eskubideak eta duintasuna defenditzen. Argentinan eta Filipinetan hondakinen erraustea legez debekatu izana ez da kasualitatea.

Friends of the Earth (Lurraren Lagunak) da ZWEren bigarren zangoa, GKE ekologista indartsuenteakoa. Munduko 76 herrialdetan dago zabaldu, 5.000 talderekin; bi milioi afiliatu biltzen dituela aldarrikatzen du.

Hirugarren osagaia *European Environmental Bureau* (EEB) delakoa da. 1974an sortua, 140 gizarte mugimendu biltzen ditu. Europako agintariei gomendioak eskaintzen dizkie ingurumenari dagozkion gaiez, hala nola bioaniztasunaz, hondakinez, nanoteknologiaz, gai kimikoez, ekolabelez edo klimaren aldaketaz. Nagusiki dirulaguntza publiko finantzatzen da.

“Gure hondakin pilak erakusten du ez garela solidarioak etorkizuneko belaunaldiekiko”

ZERO WASTE EUROPE

Zaborra, porrotaren seinale

Robin Murrayk *Zero Waste* (Greenpeace, 2002) liburuan idatzi zuenez, XX. mendea oso aurreratu arte hondakinak ez ziren ilunbetik atera. Ikusezina, ez ziren inoren kalkulutan sartzen, industria berezituak herriarren begien bistatik kentzen zituen eta kito. Lehen arazoak piztu ziren zabortegiekin, gero eta nabarmenagoa baitzen inguruko urak larriki kutsatzen dituztela, eta hori gutxi balitz klimaren aldaketan eragina dutela.

Geroago, herrialde garatuenetan hondakinak behin betirako begien bistatik kentzeko sistema mirarizkotzat saldu zituzten arren, errauste plantek ere arazo larriak sortzen zituztela demostratu zen. Hondakinak kiskaltzean toxiko are arriskuatsuagoak sorrarazten dituzte. Horrez gain, errausteak konpondu ez baina okerragotu egiten du gizakiak gaur daukan arazo handietako bat: lehengaien urritasuna.

1970eko hamarkadatik gero eta gehiago landu den kontzeptua da *Zero Waste*. Produkzio industrialaren kontzeptuan oinarrituta dago, zehazki Japoniatik mundu osora zabaldu zen *Total Quality Management* ideian. Ekoizpen kate batean produktuek eta prozesuek akatsik izan behar ez duten bezala, hondakinetan ere zerora hurbiltzea da helburua. Hondakina akatsa da.

Horrela, hasieran *Zero Discharge* (zabortegirik ez) zen ideia osatu zen *Zero Atmospheric Damage* (kutsadura atmosferikoz ez) asmoarekin, laster lehengaien urritzeak ekarritako kontzientziagatik honakoa erasteko: *Zero Material Waste* (ez alferrik galdu materialik).

Produkzio sistema osoan

“Gure gizarteek sortzen duten hondakin pilaren handiak erakusten du gure produkzio sistema eraginkortasun gutxikoa dela eta ez garela solidarioak etorkizuneko belaunaldiekiko”, irakur daiteke ZWEren webgunean. Horregatik proposatzen du gizartea bera birdiseinatzea, alferrikako hondakin oro eliminatzeko eta produzitzen den edozer izan dadin berriz usatzeko, konpontzeko modukoa, konpostagarria edo berriro sisteman birzi-

klagarria. Konpondu, konpostatu edo birziklatu ezin den guztia, berriro diseinatu edo ordezkatu, edo merkatuan debekatu egin behar da. “Hondakina kudeatzeko ez, hondakina eliminatzekeo filosofia, estrategia eta tresna praktikoa multzoa da *Zero Waste*”.

Kultur aldaketa aldarrikatzen du ZWEk, *politikoki polita* den birziklatzetik harago joateko. “Azken hamarkadotan europarrok bizi izan gara gainerako munduarekiko zor ekologikoa handituz, esportatzen ditugun materialen lau halako inportatuz. (...) Ekin behar diogu lehengai eta energia gutxiago kontsumitzeari”. Horretarako garrantzia handia ematen dio gizartea mobilizatzeari.

Baina herritarren parte hartzeaz gain ZWEren asmoan azpiegituren aldaketa sakona burutu behar dute agintariek, hiru alorretan. Alde batetik, hondakinen prebentzioa. Industriak bere erantzukizunak bere gain hartu behar ditu: produktu iraunkorrak diseinatzuz eta aldatuz; konpostatu, berrerabili edo birziklatzen gaitz direnak baztertuz; enpresetako profesionalak bezala kontsumitzaileak heziz...

Bigarrenik, hondakinen gaikako bilketa orokortu behar da. “Atez Ateko bilketa da tresnarik azkarrena hondakinen ugaritzea saihestu eta gaiak kontsumitu diren lekuan bertan garbi bereizteko”. Horrekin batera, prezioarekin jokatu behar dute erakundeek, hondakin gehiago sortzea zigortzeko. Lekuko birziklatze guneak ere sustatu behar dira.

Eta hirugarrenik, eskema osatzeko, Gipuzkoan gaur *errefusa* deitzen



Donostiako kongresuko logoa.

dena, ez birziklatu, ez berrerabili eta ez konpostatu daitekeen %10-%20 hori (ingelesezko *residual waste*) murrizten ahalegindu behar da. Horrelako produktu eta osagaiak merkatutik kendu behar dira, ezin badira aldatu eta birdiseinatu. Bitartean, errefus urri hori biologikoki egonkortzeko modua egin behar da, zabortegei berezietan arazorik gabe utzi ahal izateko.

Connet, Ercolini, Favoino...

Maiatzaren 11tik 13ra bitartean Gipuzkoara ZWEren bilkurara hurbilduko direnen artean ikusmirarik handiena Paul Connettek piztutokodu. Kimika irakasle New Yor-

keko Saint Lawrence unibertsitatean, Connett eten gabe dabil hizlari munduan barrena, gaur Filipinetan, bihar Italian. 2007an Hondarribian izan zen, Txingudiko errauste planta zela eta. Aldea nabaritutokodu.

Connettek badu paper bat non bere ideia laburbiltzen duen: *Zero Waste: a Key Move towards a Sustainable Society* (Zero Zabor: urrats funtsezkoa gizarte iraunkorerrantz). “Zero Zaborrek –dio Connettek– ezetz esaten die errauskailuei, zabortegei erraldoiei, gizarte xahutzaileari... eta baietz gizarte jasangarriari. Idealista dirudi, baina egia bihurtu dezakegu. Ez dugu espero behar zero zaborrera iristea datorren urtean, baina aurreratu dezakegu herri batzuk 2020rako horretatik oso hurbil egongo direla”.

Paul Connettek maiatzaren 12an, larunbata, hitz egingo du Donostiako udalak antolatutako harrera ekitaldian “Zero Zaborrera iristeko udalen 10 urratsak” gaia hartuta. Bere ondoan mintzatutokodu da Rossano Ercolini, Italiako Capannori herrikoa, *Rifiuti Zero* mugimenduarien motorra. 2010ean Hernanin eman zuen mintzaldia, Internetez ikusgai dagoena. Donostian azalduko du zer egin duten *Rifiuti Zero* sarean bildu diren udalek.

Hirugarren hizlari ezaguna Enzo Favoino izango da. Konpost gaie tan aditu nagusietakoa da. Italian Atez Ateko bilketari Monza hiriko nekazaritza eskolatik bultzada berezia eman zion Marco Ricciren oinordekotzat daukate. Favoinoren gaia: “Hondakin errefusa biologikoki egonkortzeko esperientziak”.

Industriak bere ardura bere gain hartu behar du, konpostatu, berrerabili edo birziklatu ezin dena merkatutik baztertuz





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Hondakinen eztabaida politikatik apartatzeko balioko ote du?

2008an Usurbilgo Udalbatzak erabaki zuenean herrian Atez Ateko sistema jartzea, honako alderdien ordezkariak eman zioten baiezkua: ANV, Aralar, EAJ eta PSEK. Geroztik Gipuzkoako hedabide salduen antolatutako burrundarak herritarren memoriatik ezabatu du datua.

Zer okertu zen geroztik? Soziologoei utziko diegu aztertzen zerk eragin duen halako saltsa herritarren artean, politikaren jarraipena egiten duten analistek azaldu bitzate pertsonalitateen, alderdien eta instituzioen jokoak. Baina hondakinen Atez Ateko bilketa Ezker Abertzalearena edo Ezker Batuarena adina izan daiteke edonorena.

Italiako adibideetan sartu gabe, Katalunian Atez Atekoa egiten duten herrien elkartean presidentea CiUkoa

dute eta zuzendaritzan daukate ERC, PSC eta Iniciativakoak, independenteak ahazteke. Baileareetan PSMko udaletan erabiltzen da sistema. Berrikitan Madrilgo sozialistek 12. Kongresuan argi eta garbi aldarrikatu dute: hondakinak errausteko edozein sistemaren kontra daude eta Madrilgo erkidegorako nahi dute Atez Ateko bilketa Zero Zaborrerako bidean.

Kultura eta kolore askotako jendea hurbilduko da Donostiara ZWEren biltzarrera, baina liberalismoa maite duten espirituek asko asaldatu gabe mintzatuko diren jende ordenazaleak izango dira gehienak. Gipuzkoako alderdi politikoek baliatuko ote dute aukera hondakinen kudeaketaz urratsen bat elkarrekin egiteko? Gure bilobek eta biloben bilobek eskertuko diete.

Usurbil da bihotza

Gipuzkoako Zero Zabor taldeak Zero Waste Europek bere kideztat aitortzen dituen arren, Donostiakoa izango dute elkarrekin burututako estreinako bilera. Maiatzeko egunok historikoak izango dira hainbat politikari eta komunikabidek erruririk gabe egurtu eta mespretxatu dituzten boluntario giputzontzako.

Luzaz –gaur bezala– herrietako *Bizirik* taldeak Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinakundeak bildu ditu. Hernanin Zero Zabor da izen hau hartutako lehena, 2009an, Usurbilen abiatzen ari ziren alternatibak berotuta. Laster heldu ziren Zumaiakoa, Zarautzkoa, Azpeitikoa... Zalantzarik gabe

Gipuzkoa Zero Zaborren arima eta motorra Usurbilgo taldea da. Herriz herri lan egiteko material gehiena berak sortu du, dinamika bizkorrena berak dauka, 2007tik landutako militantziaren fruitu. Usurbil da Atez Ateko bilketan lehena izateaz gain Zero Zabor estrategian aitzindaritzaz daramana. Gaurkoz GZZ osatzen duten 30 taldeen artean asko nabarmendu da Oñatiko taldea ere; berrikitan plazaratu du *Errausketari Ateak Ixten* dokumetala.

Gipuzkoarrek –eta Euskal Herri osotik asmo berdintsuz hurbilduko direnek– Donostiako biltzarrean egingo dute topo Zero Waste Europen parte hartzen duten beste

herrialdeetakoekin, Italia, Erresuma Batua, Eslovakia, Hungaria, Katalunia eta Holandakoekin.

Hala ere, taldeetako boluntarioek adina garrantzia edukiko dute Zero Zabor estrategian murgiltzeko interesa erakutsi duten udaletako ordezkariak. Behingoagatik, Atez Ateko bilketa egitea erabaki duten udalerrietako agintariak aurkituko dute norbait mespretxurik eta aurreiritzirik gabe entzungo dituen.

Zero Zabor udal sare bat

Zero Waste Europek Donostiako barne bilkuran aztertuko dituen puntuen artean bada bat Gipuzkoako herri askori interesatuko zaiona, Enzo Favoinok aurkeztuko duen “Nola ebaluatu Zero Zabor udalerririk? 4 adierazle proposatuz”. Italian eta Katalunian egin bezala hemen ere Zero Zabor udal sarea antolatzeko asmoa adierazi duenez zenbait agintarik, ZWEk irizpideak zehazteak bidea erraztuko die Atez Ateko bilketatik aurrerako urratsak eman nahi dituztenei.

Maiatzaren 11tik 13ra arnas pittin bat hartuko dute Gipuzkoako herritar askok: atzeritrik etorritako pertsonalitateek gaikako hondakin bilketa egiteagatik zozoak ez baina modernoak eta burutsuak direla aitortuko baitiete. Agian beste gipuzkoar askori zalantzaren bat piztuko zaio azken urteotan Atez Ateko bilketaren kontra buruan iltzatu dizkieten aurreiritzien artean. ■



ZERO WASTE SCOTLAND



Zero Waste Scotland-eko boluntarioak konpostaren sustapen kanpainen.



*sakelako telefonoetan
nahi duzun lekuan*



**Mugikorretarako gune
egokituari funtzio berriak
gehitu dizkiogu:**

BERRIAK: Aktualitateak eman duena egunez egun jarraitzeko aukera duzu.
ASTEKARIA + ARTXIBOA: Azken hamarkadan argitaratu diren astekari guztiak osorik irakurgai.

Berrikuntzak:

MULTIMEDIA: Beranduegi Telebistako saio guztiak, bideoak, diaporamak, dokumentalak, film laburrak, hitzaldiak... Guztira 600 lanetik gora.

SARE SOZIALETARA loturak eta edozein albiste, artikulua edo multimedia elementutan zure iruzkinak utzi eta besteenak irakurtzeko aukera.

DISEINU BERRITUA erabilterrezagoa izan dadin gunea eta irakurgarriagoa izan daitezen testuak.

PLATAFORMA gehiagotan kontsultagarri: iPhone, Android, Symbian, WindowsPhone eta Samsung Bada.

*Proba ezazu mugikorretarako egokitutako webgunea
m.argia.com*



Javier Martinez, FMLNko gerrillari ohia

«Estatuak uste badu suntsitu zaituela, ez dago negoziatzerik»

Hamabi urteko gerla zibilaren ondotik, 1992an sinatu ziren Erdialdeko Amerikako El Salvadorren gerrillaren eta Gobernuaren arteko bake akordioak. Egun lehendakaritzan den FMLNk armak albora utzi eta alderdi politiko bilakatzeari ekin zion orduan. Trantsizio horretan, zuzenki hartu zuen parte Suchitoto herriko alkatea den Javier Martinezek.

HARTZEA LOPEZ ARANA



HARTZEA LOPEZ ARANA

El Salvadorreko Suchitoto herriko (25.000 biztanle) alkate da gaur egun Javier Martinez *Walter*.

WALTER KOMANDANTEA goitizena zeukan gerla garaian, eta lagunak hala deitzen diote beti. Javier Martinez gerrillari ohiak, beste hamabost kidez osatu batzorde batekin, Farabundo

Martí Nazio Askapenerako Fronteko (FMLN) gudarien birgizarteratzea eta nazioarteko elkartasunaren bideratzea ukan zituen ardura. Prozesu horretan, faktore batzuk bazterrer

utzi zirela uste du eta oraino konpondu gabe daudela, negoziazioek “gerrarekin amaitzeko” ildo jarraitu zutelako, berreraikuntza eredu estandarretara mugatuz.

Nola hasi ziren gerrillaren eta Gobernuaren arteko kontaktuak?

Hurbilketa saiakera batzuekin hasi ziren, elkarriketa modukoak. 1989ko azaroan, FMLNk hiriburuan ofentsiba handia antolatu eta argi gelditu zen indar harremanen oreka bere baitan zegoela, bi aldeek ez geneukala arerioa militarki suntsitzerik. Nahiz eta gerla osoan zehar 70.000 hildako zenbatu, armadak sei jesuita espainolen kontra buruturiko hilketak nazioarteko komunitatea inarrosi zuen. NBEn esku hartzeak, baita AEBek ustelkeria aferengatik Gobernuarekiko konfiantza galdu izanak ere, negoziatioaren korridoreak ireki zituzten. Batzordeak izendatu ziren bi bandoetan, guk gure eskaerak luzatu eta pixkanaka desmobilizazioari ekin genion, bermeen truke.

Gerrillatik alderdi politikora pasatzeko bidea zer baldintzatan iragan zen?

Urtebeteko su-etena deklaratu genuen lehenbizi. Desmobilizazioa bost etapatan finkatu zen, Mexikon akordioak sinatu eta indarrean jarri

NBEk errezeta berdina aplikatzen du leku guztietan: lehentasuna, belikoa den guztia desagerraraztea da. Baina gero zer? FMLNko gerrillarien %70 pobrezian daude orain

ziren: Konstituzioaren aldaketa, gorputz militarren eraldaketa, eta pluralismo politikoaren legeztatzea, besteak beste. Bakoitzean, gerrillarien %20 desmobilitatzen ziren. Alderdi politikoa sortu zen egunean, FMLNko kideen %40 oraindik armetan zeuden, eta buruzagi askok tarrapatu klandestinitatetik atera behar izan zuten alderdiaren karguetan sartzeko.

Guk, Chalatenango zonaldean, etorkizuneko El Salvador nola aurreikusten genuen idatzia geneukan jada. Borrokaldien arteko etenetan proposamenak irudikatzen

genituen, bagenekielako goiz ala berandu gerla bukatu eta berreraikitzea etorriko zela.

Gerlaren amaiera sumatzen ari zela, zer giro zegoen?

Gudaldi gogorrenak negoziaketan hasierekin iragan ziren, alde bakoitzak posizio azkarrean ekin nahi ziolako hurrengo faseari. Eskakizunetan maximalistak izan ginen, beharrezko minimoen zimenduak finkatzeko. Errakitiko joanez gero, ahultasun marka izan zen. Hala ere, gauza batzuk lortzea ezinezkoa zen, armadaren desegitea adibidez, baina dena den, poliziaren eta guardiaren egitura “ukitu ezinak” desmuntatzea kolpe gogorra izan zen haientzat. Ematearen eta hartzearen onarpenean zegoen guztia, gauzak sakrifikatzeko prest egotea.

Benetako garaipen perspektibarik ez badago, borroka armatuaz gain, presiorako beste aliantzak egitea inportantea da, mugimendu sozialen eta nazioarteko eragileen bidez. Halaxe egin genuen. Euskal Herriaren kasuari begiratzuz, jendea



ZzL

12-16 urte

Gazteentzako zientzia-narrazioa irakurketa-liburua, zientziaren eta literaturaren arteko zubia.

%10 merkeago
eta
bidalketa-gastuak
DOAN

Hodeik ez ditu zientziak bereziki gustuko, baina Estibaliz zientzialari iaia da; udan bizi izan duten maitasun-istorioaren ondoren, Hodei zientziekiko duen ikuspuntua aldatzen hasi da...

Zientziak ala giza zientziak? Zuk noren aldeko hautua egiten duzu?

2011ko CAF-Elhuyar sarietan Gazteei zuzendutako zientzia-narrazioak kategorian saria jaso zuen proiektuaren emaitza da liburu hau.



ELHUYAR
edizioak

www.elhuyar.org/edizioak

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu dezazun, Elhuyarren zientzia eta euskarazko produktuak % 10 merkeago eta bidalketa-gastuak doan apirilaren 23tik maiatzaren 7ra.





Gerrillari jantziarekin, bake negoziaketen garaian.

subjektu izatera pasa da orain, aldatetaren aktore bilakatu dira. Arazoa da Estatuak uste badu irabaziko zaituela, negoziaketak ezinezkoak bilakatzen direla, “nahi dudana ematen dizut suntsitu zaitudalako” eske-man ari delako. Baina garaipenak eta suntsipenak egoeraren arabera-koak izan ohi dira, gatazkak errepika daitezke.

Akordioak erdiestearekin, zein bestelako potentzial jarri ziren FMLNrentzat martxan?

Akordioak plataforma gisa hartu ziren, mota guztietako proiektuak abiatzeko eta indartzeko. Testuetan negoziatzen zenaren menpe ez egotea nahi genuen, bestelako taktika obratuz. Dokumentuek emandako babesa, gure eremuak sendotzeko eta hedatzeko erabili genituen. Nire arloan, nazioarteko kooperazioare-

kin eta elkartasunarekin harremanak estutu eta kooperatibak, GKEak eta lankidetzak proiektuak sortu genituen, gure base sozialari ongizatean bizitzeko tresnak ematen saiatu eta hauteskundeetan azkartzeko.



Halere, erran daiteke birgizarteratzeak ez zituela espero emaitzak ekarri?

Epe luzerako begirada falta izan zitzaigun atal horretan. NBEk erre-zeta berdina aplikatzen du leku guztietan: lehenetasuna, belikoa den guztia desagerraraztea da. Baina gero zer? Nik zuzenean parte hartu nuen gudari ohien birgizarteratze programan. Bakoitzari lur atal bat eman zitzaion, mailegu batekin, eta hor konpon. Asistentzia tekniko gabe eta ekoizpen txikiarekin, asko pobrezian geratu ziren. Gizartearen txertatzeak berreraikitzea eta laguntza ukan behar du muinean, baita osasun egitarauak, gerlaren trauma fisikoak eta psikologikoak tratatzea ere. Erroldaturiko 25.000 gerrillarien eta laguntzaileen artean, %70 pobrezian daude orain. Gai esekia da gure alderdiarentzat.

Zer bestelako gogoeta egiten duzu gaur trantsizio hartaz?

Gerla bete-betean zegoela gidatze nukleoak zituen FMLNk, norabide estrategikoak aztertzeko. Indar zibil bihurtzearekin, “tronuaren gibe-ko” talde horiek desagertu eta hautes-lerroak hartu zuen gaina, funtzionario asko fabrikatuz. Alta, kudeaketa publiko eta soziala ongi eramateko, halako egiturak beharrezkoak ditugu. Suchitoto herrian, esate baterako, gerlak utzitako hondamendia ez zen bakarrik fisikoa izan, ehun soziala ere suntsiturik gelditu zen. Berreraikitzea ez da beraz bakarrik diru kontua, adiskidetzea ere funtsezko faktorea da. ■



MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Alberto Barandiaran

‘Hedabideak’ liburuaren egilea

«Hedabideek komunitateak trinkotzeko balio dute»

Zergatik dira garrantzitsuak hedabideak hizkuntzen biziraupenerako? Zer du emateko Euskal Herriak eremu horretan? Galdera horiei erantzun asmoz idatzi du Barandiaranek (Garabide elkarteak eskatuta), *Hedabideak* liburua.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Josu Santesteban

GARABIDE elkarteak lankidetzarako sortua da, Euskal Herriak elkarbanatzeko daukana eskaini nahi du: bere nortasunaren bizi-ahalegina. Hizkuntza gutxietsiak errekupeztzen ahalegintzen ari diren komunitateekin du harremana. Ildo horri segiz hiru liburu (*Euskararen berreskuratzea*, *Hizkuntzaren estandarizazioa*, *Hedabideak*) eta dokumentala (*Euskararen berreskuratzea*, ARGIAk ekoitzia) argitaratu ditu. Denak www.garabide.org-en eskuragarri daude. Materiala gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez dago, Garabide kanpora begira ari baita. Euskaraz ere badaude edukiak, “batzuetan galdera errazena erantzuten zailenak direlako, barrura begiratu behar duzu eta galdera zure buruari eta ingurukoei egin”.



Hedabideen estrategikotasunaz jabetuta al gaude?

Batzuk bai, baina oso muinean gaudenok. Jendea galdetzen badiozu zer den garrantzitsuena hizkuntza berreskuratzeke, komunikabideak ez dira aterako lehen lerroan inoiz. Beti esango dizu irakaskuntza, administrazioa, transmisioa... Hori guztia oso garrantzitsua da, eta seguru asko oinarria dira, baina komunikabideek ere garrantzi handia daukate, eta gaur egun are gehiago. Internet eta sare sozialak dauzkagu, benetako leihoa dira munduari begira.

“Liburuan ez genuen esan nahi zer egin behar den beste tokietan, baizik eta guk zer egin dugun. Balio badizu zerbaitetarako hartu, ez dizuegu esango egunkaria sortu behar duzuela”.

Gurea zabaltzeko eta kanpoko gurea ekartzeko balio digute hedabideak.

Munduarekin harremanetan jartzeko leihoa da. Beharbada duela 40 urte leihoa hori ez zen horren handia, edo itxita ere funtzionatu genezakeen, batzuk hurbiltzen ziren noizean behin leihoa horretara. Gaur egun leihoa hori irekita dago beti eta argi asko sartzen da. Mundua etengabe sartzen zaigu toki guztietatik

eta leihorekin kristalaren kolorea gure erabaki dezakegu. Esan dezaket leihoa hori nire kolorekoa izatea nahi dudala eta euskaraz jaso nahi dudala munduaren berri. Eta nire munduaren berri nire koloreen bidez eman nahi dut. Zergatik da garrantzitsua kolorea ematea? Hizkuntzak gauzak matizatu egiten ditu askotan, ez da gauza bera notizia bera ingelesez edo euskaraz jasotzea. Gu



“Jendeari galdetzen badiozu zer den garrantzitsuena hizkuntza berreskuratzeko, komunikabideak ez dira aterako lehen lerroan”.

kapazak gara gauzak geuk matizatzeo, besteek matizatu ez ditzaten.

Hedabideek hiztun komunitateak trinkotzeko ere balio dute.

Dokumentalean Bujandak [Mikel, Euskalerrria Irratiko zuzendaria] galdetzen du ea zertarako nahi duten beraiek irratia, eta hala dio: “Iruñerriko euskaldunak elkartzeko”. Iruñerriko euskaldunak Iruñeko plazan elkartu gaitezke [Barandiaran Iruñean bizi da] edo irrati baten ondoan. Badakigu irradian elkartuko dela gu bezalako, edo

behintzat gu bezala hitz egiten duen, jende asko. Elkar ezagutuko dugu, elkarbanatuko dugu, eta horrela komunitatea trinkotzen da. Gu-aren kontzientzia sortzen da.

Ekuadorrekin-eta izan dugu harremana azkenaldian eta esaten ziguten: baina beste bailaran diferente janzten dira eta beste hizkuntza bat hitz egiten dute. Leitzatik Andoainera egon daitekeen saltoa berdina da. Haienztat oso inportantea da, ez batzen dituen, baizik eta diferentzia. Distantziak komunika-bideekin askoz txikiagoak dira.

Hizkuntzaren estandarizazioan, normalizazioan, nola eragin dezakete hedabideek?

Gurean oso inportanteak dira, beste toki batzuetan beharbada ez da horren begi-bistakoa. Hemen *Egunkariak* [Euskaldunon Egunkaria] hizkuntza idatziaren estandarizazioan edukitako garrantzia funtsezkoa izan da. *Egunkariak*, ARGIAk edo herri komunikabideek doitu egin dute hizkuntza. Gogoratzen naiz zer garrantzi zuten eta zer lan egin zuten zuzentzaileek eta hizkuntza arduradunek [Euskaldunon Egunkarian]. Eguneror iristen ziren hitz berriak eta horiek nola esan erabaki behar zen. Euskaltzaindia ez zegoen eguneror hor, idazleak ere ez.

Gaur egun ikaragarria da zer garrantzi daukaten irrati esatarien lokuzioek eta formek. Kutsatu egiten dira, onerako eta txarrerako. Nahikoa da esamolde bat gaizki esaten hastea zabaltzeko. Telebistan zer esanik ez. Kristoren garrantzia daukate komunikabideek hizkuntza trinkotzeko. Oso begi-bistakoa da gurean.

Beste toki batzuetan ez hainbeste.

Ekuadorra joaten bazara eta esaten badiezu komunikabide idatziak bul-tzatu behar dituztela, esango dizute jende gehienak ez dakiela irakurtzen, ez daukatela dirurik eguneror egunkaria erosteko, ezta errotatiba erosteko ere. Beharbada haienztako askoz garrantzitsuagoa da irratia egitea edo herri komunikabidea.

Liburuan ez genuen esan nahi zer egin behar den beste tokietan, baizik eta guk zer egin dugun, nola egin dugun. Balio badizu zer baitetarako hartu, ez dizuegu esango egunkaria sortu behar duzuela.

Hedabideak sortzerakoan zein eredu-ri begira aritu gara?

Mendebaldean bizi gara eta tradizioa hortik datorkigu, Frantziatik eta Espainiatik. Orain mundu anglosaxoitik ere bai. Guk zeri eman diogu garrantzia? Bada, besteek dutena guk edukitzeari: duela 40 urte papera zen komunikabide indartsua, bada guk hori egin nahi izan genuen; gero telebista etorri zen; Internet zabaldu da eta guk hori egin nahi izan dugu. Esan nahi dudana da mimetismo bat egon dela, baina normala da. Ondo-

Herri ekimeneko euskarazko hedabideen sektorea

Euskal Herriko 100dik gora komunikabide biltzen ditu sektoreak, idatzizkoak, irratiak, telebistak eta Internet kontuan hartuta. 620 langile baino gehiago ari dira eta 27 milioi eurotik gorako aurrekontua mugitzen dute. 7 milioi euro inguru sortu eta ordaintzen dituzte zuzenean gizarte segurantz eta zergen bidez. CIESeK 2007an zioen 450.000 pertsonak kontsumitzen zituztela noizbait euskarazko hedabideak, euskaldunen %57ak.

Hedabideen bitartez –Alberto Barandiaranek elkarriketan dioen moduan– hiztun komunitateak bere errealitatearen berri zabaltu nahi du, eta era berean, munduaren berri jakin nahi du. Horretarako euskaldunak euskarazko hedabideak nahi eta behar ditu, elkar komunikatzeko eta, horren ondorioz, hiztun komunitatea trinkotzeko. Premiazkoak dira, estrategikoak. Hala aitortzen dute erakunde publiko eta alderdi politikoek, beste kontu bat da iritzia benetako sostengu bihurtzen duten.

Herritarrek herri ekimeneko euskarazko hedabideak kontsumitzen dituzte eta balorazio positiboa egiten dute, baina administrazioaren sostengu ekonomikoa ez da proportzio berekoa. 2011n 7.500.000 euroko diru-laguntza jaso zuten herri ekimeneko euskarazko hedabideek eta EITBri berari bakarrik 134,1 milioi euroko diru-laguntza eman zion Kultura Sailak. Adibide bat baino ez da. Sektoreak dituen beharretatik oso behera egon dira beti laguntzak. Krisi garaian laguntzak are gehiago murriztu dira. Diru-laguntzak emateko orduan sektore estrategikoen artean ez zerrendatzeaz gain, hedabideok kritikatzeko dute erakundeek ez dutela publizitate instituzional nahikorik egiten hedabide horietan –haien kalkuluen arabera, publizitate instituzionalaren %7 baino ez doa euskarazkoetara. Azken urteotan gainbehera ekonomikoak gogor jo du eta mundu mailan ere hedabideak aldaketa

garaian dira. Nazioartean komunikabide sendoek behea jo dute eta hemen bertan ere batek baino gehiagok itxi ditu ateak.

Hedabideek aspaldi eskatu diete instituzioei hausnarketa partekatua gauzatzeko gune bat, baina orain arte ez da posible izan halakorik eratzeara. Oso posible da, azkenean, Jaur-larritza eta hedabideen arteko mahaia uda aurretik eratzeara. Beste instituzio nagusiekin ere mahaia eratzeara nahi-ko luke sektoreak.

Sostengu premia agerikoa da. Sektoreaz hausnartzeko 2010eko azaroan hasi ziren biltzen herri ekimeneko hedabideak. Orduz geroztik hainbat aldarri-agerraldi egin ditu sektoreak. Orain, elkarteak sortzeko bidean da. Elkartaren helburu nagusiak honakoak lirateke: administrazioaren aurrean eskaerak egiteko ahots bakarraz aritzea; sektoreari buruzko ikerketa eta hausnarketa sustatzea eta hedabideen arteko elkarlana bultzatzea.

ko hizkuntza handiek zutena guk ere nahi genuen, halako berdintze nahi bat genuen. Behin hori izanda, kritikatu dezakegu, baina nik uste balio izan digula.

Sareak hartu du garrantzi handia.

Momentu honetan horri ari gara garrantzi handia ematen, baina mundu osoan bezala, norantz jo garri ezinean gabiltza. Argi dago giltzarri bat: komunikabide denak daude horri begira, saiakerak egiten, baina ez dut uste guk asmatuko dugunik gauza asko, burbuila handia dago. Inpresioa daukat hemendik urte batzuetara gehiena hortik etorriko dela, prentsa, telebista eta irrati adibidez. Hemengo hedabideak adi daude, ez daude bertan goxo.

Internet euskaldunontzat izan daiteke hedabide eraginkorra, baina agian kexuontzat ez.

Liburuan esaten da inbertsio handirik gabeko komunikabidea dela, baina sareak behar ditu, eta egia da lubaki digitala ere ari dela sortzen. Ekuadorren ez dago sare egokirik, herrietara ez da iristen. Horregatik, Internet bai, baina ez. Beste komunitateek bestelako erritmoak behar dituzte. Guretzako garbi dago baietz. Hor gaude, eta bat-batean ezin dugu joan ez dakit nora. Gure abiapuntua inguruko hizkuntzak dira eta haien antzeko izan nahi dugu, ez gutxiago. Normalizazioaz ari garenean normalak izateaz ari gara. Liburu onak, irrati onak, kanpotik iristen den informazioa euskaraz nahi dugu, eta

Internet ezinbestekoa da. Tokia bilatu behar dugu. Aukera hau nola baliatu dakienak altza dezala eskua.

Euskarazko hedabideak sektore gisa egituratzen hasiak dira.

Oso interesgarria da egiten ari diren lana. Ez gara hainbeste, eta ez gara hain indartsuak. Txikitasunak ematen digu malgutasuna eta bizitasun oso garrantzitsua. Haizeak asko jotzen duenean babestuta egoteko aterpea polita eta interesgarria da, nahiz eta bakoitza bere aterkiarekin ibili. Bazen garaia, nik oso positibotzat hartzen dut. Behar-bada krisiak bultzatu du horretara, baina nik uste gauza politak egin ahal izango direla. ■



Babeslea: Hernaniko Udala



...eta busti egin nahi dugu

Osasun Biltzarra Bilbon

MAIATZAREN 18 ETA 19AN Osasun-goia Euskalduntzeko Erakundeak 22. Osasun Biltzarra egingo du Bizkaiko hiri-buruan. Hiru gai jorratuko dituzte hainbat hitzaldi eta mahai-ingururen



bidez: *Bizitzaren medikalizazioa, Osasun-langileak gaixotzen direnean eta Osasun-langileak eta teknologia berriak.*

Euskararen Jatorriaren VII. Biltzarra Diman

MAIATZAREN 12AN egingo dute Diman (Bizkaia) Euskararen Jatorriaren VII. Biltzarra. Aurten etnografia landuko dute egun osoko jardunaldietan, hizkuntzalaritzari egin diezaiokeen ekarpenez hausnartzeko.

Joxemiel Barandiaran eta Caro Barojak hizkuntzalaritzari ekarritakoa aztertuko dute. Felix Zubia-gak etnografiaren sustraietara joko du eta Javier Goitia geografoa erro galduetara buruz arituko da. Orain dela gutxi argitaratu den *Euskararen Jatorria: enigma europar bat* dokumentala ikusiko dute, euskararen jatorriaz dauden aurreiritziak aztertzeko. Hitz eta pitz aritzeaz gain, Dimako Baltzola koba eza-guna bisitatuko dute. Egunaren amaieran Vahan Sarkisian, Bittor Kapanaga eta Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegia* omenduko dituzte.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Chicago 1886-Euskal Herria 2012

Aste honetan mundu osoan ospatu da Maiatzaren Lehena, duela 126 urtetik Lanaren Eguna moduan ezagutzen dena. Data tragiko eta heroi-koa gogoratu da, estatubatuar batzuk heriotzara kondenatuak eta urkatuak izan baitziren egun horretan. Zortzi orduko lanegunaren alde borrokatzeagatik kondenatu zituzten; garai haietan egunean 18 orduz egiten zuten lan langileek. AEBetan 1886ko maiatzaren 1ean greba orokorra egin zen zortzi orduko lanegunaren alde eta epizentroa Chicago izan zen. Polizia basaki oldartu zen. Kaosaren erdian, bomba bat zartatu zen, ustez poliziaren kontra jaurtitakoa eta ondorioz sei langile atxilotu eta epaitu zituzten, nahiz eta haien erruduntasuna sekula ez zen frogatu. Sei langileak heriotzara kondenatu zituzten; haietako biri azkenean zigorra komutatu eta bizitza guztian derrigorrez lan egitera kondenatu zituzten. "Chicagoko martiriak" izan ziren. Lau urte geroago, 1890ean, Maiatzaren Lehena ospatzen hasi ziren mundu osoan.

Gaur, XXI. mendean, espekulatzaile eta putre kapitalistak —merkatuak—, txandakako gobernuek lagunduta ongizate estatua desegiten ari dira: prekarietatea, lan diskriminazioa, kaleratze merkeak, langabeziaren hazkundera, osasungintzako, hezkuntzako eta immigrazio politikako murrizketa basatiak... Azken hamarkadetan langile klaseak eta herri sektoreek sufrimenduz eta borrokaz lortutako ongizatea da. Zortzi orduko lanaldiaren aldeko borroka hartatik 126 urte pasa direnean, badago Euskal Herrian lanaldia luzatu eta gutxiago kobratzea defendatzen duenik. Atzeraka goaz. "Geldi!" esateko ordua da. Chicagoko martiri haiek egin bezala. Ezkerraldeko gure meatzariak egin bezala —etxebizitza duinaren alde greba luze eta handietan lehena egin zuten 1890ean—. Milaka euskal langilek orain arte egin izan duten bezala. Azkeneko greba orokorrean bezala. Erresistentziari eutsi behar zaio, kapitalismoaren aurka, banku handien aurka eta euren kudeatzaile politikoen aurka. Atzera pausorik ez!

Juan Mari Arregi



BAHEA

Enpresen sareko estrategia linguistikoari buruzko jardunaldietan hartu zuen parte Txerra Rodriguezek (www.blogak.com/garaigoikoa). Euskal Herriko 20 enpresa aliriztira aukeratuta ondorio hauek ateratu dituzte:

“— Webguneetan enpresa gehienek eleanitz jokatzeko dute. Bi hizkuntza gutxienez denek erabiltzen dituzte. Eta guztietan (kasu batean izan ezik) euskarazko bertsioa dago.

— Sare sozialetan, aldiz, enpresa gehienek elebarkar jokatzeko dute. Salbuespenak badaude, baina gehienak sare sozialetan hizkuntza bakarrean aritzen dira: gaztelaniaz jakina (nahiz eta horietako askok nazioarteko merkatuari begiratzen omen dioten).

Bi ondorio horiek nire arloarekin (soziolinguistikarekin) harremanetan jarri nituen berehala: sinplifikatuz, esparru formalenean euskarak presentzia duina du, baina informalean ez. Euskararen berreskuratzean ere egin du aurrea euskarak nabarmen esparru formalean, baina ez horrenbeste informalean (egile batzuek atzera ez ote duen egin barruntatzen dute)”.
 (J.M.A.)

Hau ote da ordaina?

EUSKAL PRESOEN gaia ondo jorrazteko komeni da bere testuinguru historikoa ondo zehaztea, bestela unean uneko lupa-begiradak gertukoaren distortsio esanguratsua eman diezaguke. Eta testuinguru hori, euskal gizarteak azken mende erdian bizi izan duen gatazkaren amaiera da. Kendu gatazka nahi bada, eta jarri ETaren amaiera, hor kontsentsua zabalagoa da eta. Kontua da gatazkatik gatzela eta elkarbizitzara goazela, edo hori gura dela. Eta espetxe politikara itzulita, esaldi horrek esan gura du presoak diren egoera batetik presorik ez den errealitate batera goazela.

Trantsizio horretan gaude, bide gaitz eta malkartsu horri dagokion bihurgune horietako batean. Denetik da bide horretan, hainbat ikuspegi, irainak, atzera egin beharra, onartu beharra, irentsi beharra... eta gatazka bortitzetan inoiz ardatzean jartzen ez diren bi osagai, baina elkarbizitzaren eraikuntzan giltzarri direnak: sufrimendua eta pertsonen eskubideak. Inoiz eta inork une honetan galdu ezin duen perspektiba da hau, Madrilek, Lakuak, alderdiek, hedabideek... eta, zeresanik ez, presoek presoekin galdu ezin duten ikuspegia, bide hau egiteko haiek ere kontsentsu oso zabala beharko dutelako.

Mozorrotuta edo ez, bide hori akordio politiko batetik etorriko da. Alde horretatik bada esanguratsua Barne Ministerioaren planari PPren leizeetako ahotsen erantzuna, Jaime Mayor Oreja bada adibide on bat: "Akatsa da esatea espetxe politika ez dela aldatzen eta gero beste plan bat egitea". "Ez da aldaketarik espetxe politikan", dio Mariano Rajoy berak. Baina *El Mundo*-k argi erantzuten dio, esaten zen ETA desegin arte ez zela hurbilketarik izango, "bada bai, ETA ez da desegin eta hurbilketak izango dira".

MUGIMENDURIK baden ala ez, hori da zalantzetakoa, eta denak adierazten du baietz, zerbait bade-la, bestela PPren Gobernuak nahikoa zuen dena zegoen bezala uztea eta listo. Mugimenduen interpretazioan dago gakoa, ETak bere borroka armatuaren amaieraren berri eman zuenetik, sei hilabete iragan direla eta inmobilismoaren pilota Espainiako Gobernuaren teilatuan geratu dela. Eta mugitu da.

Bistan da ez dela aski, hasiera bat besterik ez dela, baina jokoaren arauak non diren finkatzen ditu eta hori bera bada, gatazka armatuaren amaieran, indar harremanen erakusgarri. Eremu horretan Esta-

tuak irabazi egin du, eta bukaera ere berak markatuko du. Areago, gatazkan zehar presoan erabilera politikoa etengabekoa izan bada, bukaeran ere hala egingo du Estatuak. Hori da ezker abertzaleak bere aldebakarreko erabakietan kontrola ez dezakeen eremu garrantzitsuen, eta, aldiz, hori da Estatuak kirtenetik heldua duen esparru bakar eta erabakigarria.

Gatazka armatuaren amaiera gauzatzean, orain arte abilezia handiz jokatu du ezker abertzaleak eta politikoki zokoratua egotetik lehen plano politikora jauzi egiten asmatu izan du, indarrez gainera. Baina tamainako jauzi bat inolako ordainketarik gabe gertatuko dela pentsatzea ere ez da erabat errealista. Akaso Espainiako legediak behartutako guztia irenstea ez da gutxi, edo bai, denborak eta ezker abertzaleak berak ebaluatu beharko dute.

Eta presoan eremuan ere beste hainbeste, sinbolikoki Barne Ministerioak behartutakoaren eta herrietan, bereek, egingo dizkieten ongi etorrien orekan egongo da presoan erantzuna, lehen urratsean preso bakoitzak eman beharko duena, eta bigarrean, ezker abertzale osoak baloratu beharko duena.



XXIV. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2012

Lanak aurkezteko azken eguna: 2012ko maiatzak 14

- Sariak:
- Rikardo Arregi Kazetaritza Sari nagusia
 - Epaimahaiaren Sari Berezia
 - Kazetari Berria Saria
 - Ohorezko Aipamena

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua

943 300 831 • euskarazerbitzua@andoain.org • www.andoain.org



Andoaingo Udala
Euskararen Normalizaziorako Lansaila



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Historia Politika eta Salburuordetza

Baleren Bakaikoa Azurmendi

Norabide ekonomiko zuzenago bat



ipuzkoako foruan hain errotutako ongizate estatua desagertze bidean ez badago ere, ahultzen ari zaigu. Arazo larri hori, langabezi tasa altu, industriaren lekualdatze eta populazioaren zaharkitzearekin lotu behar da. Ongizate estatua mehartzen ari zaigu alde orotatik. Murrizketa honen lau atal aipatuko ditut, gero beste hainbeste neurri proposatzeko. Lehenik, ongizate honen euskarri garrantzitsuenetakoa, irakaskuntza demokratiko eta bidezkoa da, eta berau murrizten ari zaigu abiadura bizian. Bigarrenik, osasungintza daukagu, zeinean oraingoz botiken zati handiago bat ordaindu beharko dugun. Hirugarren euskarria, pentsio publikoena da eta berauek ere urritze bidean daude; izan ere, nabarmentzen ari dira jubilatuen diru sarrera errealak behera egiten ari direla, kontuan badugu hileroko botiketako gastuak hirurogei bat euro izango direla pentsionista bakoitzarentzat. Azkenik, hiritarrek etxebizitza duin bat izateko eskubidean datza, baina langileek oso zail daukate, bizitza guztia zorpetuta bizi nahi ez badute behintzat.

Herrialde bati krisialdi batetik irteteko aukera ezin hobeak ematen dizkio hezkuntza sistema sendo batek. Horren froga eskandinaviar herrialdeetan daukagu, baita Hego Korea eta beste zenbait herrialdetan ere. Aldiz, Espainiak bide horri muzin egin nahi dio, baina Hego Euskal Herriak beste bidea har dezake: indar politiko ekonomiko eta sozialek orok hitzarmen sendo bat egin dezakete. Zertarako? Hezkuntza sistema, eta ikerkuntza eta garapenerako inbertsio publiko handiagoak gauzatzeko. Gai honi buruz Joseph Stiglitz Nobel Saridunak behin baino gehiagotan aipatu du eskandinaviarren eredu, non ikerkuntzari esker krisialdi larri hau nahiko kontrolpean duten iparraldeko estatu horiek, Espainiako Estatuak alderantzizko bidea hartu duen bitartean. Garbi dago, Hego Euskal Herriak norabide horri uko egin behar diola eta irakaskuntza-ikerkuntzan inbertitzen jarraitu behar duela.

Osasungintzan ere gastuak ugaritu behar dira egunetik egunera adineko jende kopuru handiagoari aurre egiteko; gainera, lanpostu berriak sortzeko eremua da, zalantzarik gabe. Atal honetan ere Espainiako Gobernuak gastu



MADDI SOROA

publikoak murriztuko ditu portzentaje handi batean: ehuneko hamarretik gora. Jende gehiagok zerbitzu hau eta eskaintza murriztagoa izango ditugu. Beraz, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak beren esku izango dute zerbitzu maila mantentzea, zerbitzu hori bera ere errentaren birbanaketa gauzatzeko instrumentu bat gehiago baita.

Ez da egia pentsioak mantendu direla azpimarratzea, Espainiako Gobernuak aitortzen duen bezala. Pentsioak beren balio erreala galduz joan dira Maastrichteko hitzarmena onetsi zenetik eta orain balio galtze prozesu horretan jauzi erraldoia emango da. Zer ekarriko du pentsio kopuru berarekin botiketan zati handiago bat ordaintzeak? Errentaren balio galtzea, zalantzarik gabe.

Espainiako Konstituzioak jasotzen du espainiar orok eskubidea duela etxebizitza duin bat izateko. Baina, nola ulertu eskubide hori, etxebizitza lortzeko bizi guztirako zorpetu behar baldin badugu? Oinarritzko eskubide hau ahalbideratzeko Hego Euskal Herriko gobernuek eta udalek etxebizitzak eraikitze lursail ez espekulatiboak etxebizitza kooperatiboan esku jarri beharko lituzkete. Eta behin etxe horietan bizitzen hasi ostean, modu kooperatiboan kudeatu, ez norbanakotu, espekulatzeari ateak itxi nahi bazaizkio bederen. Hots, merkatu hori kontrolpean ipini behar da, oinarritzko eskubide horren kontura espekulatzaileek beraien sakelak ez ditzaten sobera bete.


Norabide honi galga ez badiogu ipintzen, euro guneko periferia osatzen dugun herrialdeak bigarren abiadurako ekonomiak izango gara. Azken finean, egungo prozesu endekagarrian jarraitzen baldin badu, Europar Batasuneko industria guneetarako eskulan merkearen hornitzaile bihurtuko gara: hezkuntza kaxkarrak, ikerkuntza urri eta lan eskasia izango duen herrialdea. Hori guztia, egun Afrika eta Latinoameriketatik datozkigun etorkinen papera periferiako herrialdeetako langileek beteko dute: langile kualifikatu batzuek euro guneko enpresetan aurkituko dute lana eta langile ez-kualifikatu andanak zerbitzu ez-produktiboetan herrialde aberastetako lanpostu eskasnak eskuratuko dituzte.

Beraz, badugu zereginik. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1



Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museoteiza.org

2



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3



Patta ta Sendaezinak

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soralue GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



888 txiste Kike Amonarriz

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2319. Argia)

BILBOKO KAFE ANTZOKIA

- Joseba Konde Zubiaurre (Elgoibar)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Dioni Beraetxe Aranburu (Usurbil)
- Mikel Lizarreta Jaka (Gartzain)
- German Kortabarria Igartua (Getxo)
- Inazio Usarralde Arantzadi (Lazkao)

KIROLAZ BADAKIT

- Iñaki Zipitria Urkizu (Lezo)
- Joxemi Saizar Arostegi (Tolosa)

EUREKA! Zientzia museoa

- Aitor Sangroniz Akarregi (Santurtzi)
- Juanjo Barandiaran Arratibel (Donostia)
- Antton Idiakez Korta (Ezkio-Itsaso)

XU JUN eta BEÑAT FUENTES CDA

- Maite Arrizabalaga Txurruka (Mutriku)
- Jose Felix Zamakona Aranguren (Markina-Xemein)
- Alberto Los Arcos Fernandez (Aras)
- Maria Jose Etxaide Ibarguren (Bergara)
- Gaintzako Udal Liburutegia (Gaintza)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



EUROPAKO **ZERO ZABOR** URTEKO BILTZARRA

Maiatzaren 11tik 13ra
Gipuzkoan

HITZALDI IREKIA

Paul Connett

-Zero Zabor politiketan aditua-

Maiatzak 11, ostirala / 19:00

Donostiako Udalbatzarrean



ANTOLATZAILEA

BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

